

Berrigarra

Zaldien ostatua

Elosuko Benta baserrian
zaldiak zaintzeaz arduratzen dira



BERRIA GARAJEA

Amillaga 49, Bergara.

010 76 00 49 / 01 49 617 001 100



fordfocus
1.950.000
pezetatik
aurrera

Debagoieneko Bigarren eskuko autoen II. Erakusketa

ARRASATE • Apirilak 7, 8 eta 9




Arruena Parkea (Hiper Eroskiren ondoan)

Ordutegia: 10:00-20:00 (Igandea: 10:00-14:00)

100 auto baino gehiago!



Antolatzaileak



ELKAR fotokopiak


Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

Enpresen beharrei erantzuteko zerbitzu berria:

- Planoen kopiak
- Planoen handitze eta murriztea
- Ploteoa
- Eskaneoa



Fotokopiak Plastifikazioak DIN A4 eta DIN A3 Fax zerbitzua Enkuadernazioak Eskolarako materiala Kautxozko zigiluak Faszikuluen enkuadernazioa Koloretako fotokopiak laserrean



Matxismoaren beste aurpegi batez

Iñazio Arregi / Partaide ikastolen elkartekoa

Oraingoan ere aurkitu nau Eduardo lagun deabru honek. Bergararik kanpo bakean utziko ninduelakoa nengoen, Berrigarako kolaboratzaileen zerrendatik ezabatuko ninduelakoa, baina ez. Zuzendu ditu nire laneko telefono zenbaki eta ordutegiak, eta hemen dut berriro deika, hurrengo alerako zerbait idatziko ote dudana.

Zer egin horrelakoetan, eta, beti bezala, aldizkarietara jo. Norberaren gustuko berririk ez, eta daudenak ere nahiko erabilitakoak. Hauteskundeen erresaka. Igokada-jaitzieren interpretazio eta ondorioak; Ibarretxek esandakoak eta Aznarrek erantzundakoak; Batzarrek EH utzi duela eta sortu diren gorabeherak; Erreal eta Athleticen estuasun eta angustiak (ia-ia ordenagailu aurrean jarritakoan norberak jasaten dituenen parekoak); sikiera Olanok berri onik ekarriko ote digu aurtengoan.

Etsita, bigarren begirada bat eman diot aldizkariari eta ezkutuko orrialde batean berri bitxi eta deigarri bat irakurtzeko beta izan dut. Emakumeen egoeraz, datu hotzak. Espainiar estatuan kartzelaratuta dauden emakumez.

Datu hauek irakurtzeak zer pentsaturik eman dit. Datu hotzak, eta euren gorritasunean garratzak: Kartzeletan dauden emakumeen %62k ez ditu lehen mailako

ikasketak burutu. %20k soilik bukatu du Oinarrizko Heziketa Orokorra. Askatasunean, kalean zeudeneko lanbide nagusia saltzaile ibiltariarena zen. %28 alfabetatu gabeak, eta %51 hiru-bost seme-alaben ama. Begien bistatik ezkutututa dugun errealtate gordina.

Batek badaki kartzelan bukatzen duena ez dela normalean goi mailako estatuseko jendea izaten. Hala ere, kartzeletako imajina idealizatu bat nagusitzen ari zitzaien aspaldi honetan, lau paretan artera sartzen

"Kartzeletan dauden emakumeen %62k ez ditu lehen mailako ikasketak burutu. %20k soilik bukatu du Oinarrizko Heziketa Orokorra. Askatasunean, kalean zeudeneko lanbide nagusia saltzaile ibiltariarena zen.

ikusi dituen gizon (ez emakume) ospetsuen eraginez, nahiz eta gehienetan aurreko atetik sartu, konturatu orduko atzekotik irteteko: bankari ospetsuek, finantziari eta industrial aberatsek, galiziar narkoek, politikoez, era guztietako trepek, graduaziodun militar eta goardia zibilak osatzen omen zuten paradisu berriko bilgunea.

Gaur, datu horiek irakurtzean zer pentsaturik izan dut. Batetik, kartzelara joateko era desberdinak izanik, lehen mailako gaizkileen zerrenda gizonen osatuta dagoela, erabat. Hor ere, txakurrak ortozik eta emakumea oinetakorik gabe. Bestetik, egoera hau gizartean ematen den lan eta estatus banaketa erreal baten ispilu dela onartzen bada, bide luzea geratzen zaie emakumei erabateko integrazioa lortzeko, nahiz eta euren benetako ahalmenak ukatzen dizkietanak gutxituz doazen.

Beste ondorio bat ere atera dezake txikito. -Erantzungo dit emakume adimen zorrotzak-. Ze pertsonaia klase aukeratu nahi hituan ordenagailu aurrean eseri haizenean?. Zer dituk Ibarretxe, Aznar, Olano, Athletic, Erreal?. Nor hartzen duk kontuan idazterakoan?. Emakumea ala gizona?. Hi ere bahago, bada, gogoeta sakon baten beharrean. E?

Isil-isilik, ordenagailua itzali eta beste eginkizun batzuei ekin behar.<

barruan



Koldo Zuazo

Euskal filologiako irakaslea

"Ez da normala lagunartean euskara batuan jardutea Bergaran"

8.



A. Mendizabal

CDR taldeko txirindularia

"Zorte txarra izan arren, iaz baino hobeto nabil aurtengo denboraldia"

25.



Paula Alberdi

Sendabelarretan aditua

"Hiltzen zeguan Elgoibarko mutil bat sendatzia lortu neban, berakuakin zeguana"

33.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

Farmaziak

Eguakitza 31:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Zapatua 1:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Domeka 2:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Astelehena 3:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Martitzena 4:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguaztena 5:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguena 6:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Ogia

Domeka 2: Ogizun.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 24

1-17-25-28-47-48 (osag.43/itz.5)

Astelehena 27

5-7-13-20-25-44(osag.31/itz.7)

Martitzena 28

2-20-25-34-41-48 (osag.33/itz.1)

Eguaztena 29

20-22-25-28-32-40 (osag.34/itz.5)

PRIMITIVA

Zapatua 25

4-13-22-27-28-35 (osag.11/itz.9)

Domeka 26 Saritzarra

1-4-29-33-39-45 (osag.38/itz.5)

ONCE

Eguakitza 24: 51.767 (023 seriea)

Domeka 26: 28.121 (031 seriea)

Astelehena 27: 46.964

Martitzena 28: 46.236

Eguaztena 29: 25.743


hau be badou?

Baloi gidatuak airera

Alemaniko Cargolifer enpresak baloi gidatuak kontinente batetik bestera karga eramateko erabili nahi ditu 2004. urterako. Helioaz baliatuko dira baloiok. Globo gidatu ezagunenetako bat 1936an hidrogenoak su hartu eta eztanda egin zuen Hinderburg-a izan zen. Helioa hidrogenoa bezain arina da, baina seguruagoa. *Elhuyar*

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatua 1

Zerua garbi antzean izango da, baina arratsaldean ugaritu egingo dira hodeiak. Tenperaturak gora egingo du aour bat. Hegoaizea.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: apirilak 4




Ilgora: apirilak 11



Ilbete: apirilak 18



Ilbehera: apirilak 26




Domeka 2


Zerua estalita egongo da egun osoan. Euri piska bat egingo du. Temperatura gorantz. Haizeak hegoaldeetik jotzen jarraituko du.

Eguzkia

Domeka, apirilak 2



Sortu: 07:59



Gorde: 20:42

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

| | Elosu | | | San Juan | | |
|----------------------|---------|---------|------------------------|----------|---------|------------------------|
| | max. °C | min. °C | euria l/m ² | max. °C | min. °C | euria l/m ² |
| Eguena 23 | 11,5 | 9 | 12,3 | 17 | 9 | 3,8 |
| Eguakitza 24 | 12 | 5 | - | 19 | 9 | - |
| Zapatua 25 | 12 | 5 | 2 | 10 | 2 | 2,2 |
| Domeka 26 | 12 | 3 | 6,4 | 11 | 4 | 35,8 |
| Astelehena 27 | 7 | 2 | 37,4 | 8 | 7 | 35,1 |
| Martitzena 28 | 3 | 0 | 11,8 | 8 | 2 | 6,9 |
| Eguaztena 29 | 5 | 1 | - | 9 | 3 | 0,3 |

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Babalora

Memeloa, geldoa, mokoloa. Edozer gauzogatik barre egiten duen pertsona, lasaia, malizia gabea, sineskorra. Ez da oso despektiboa.

- *Nora juango aiz ba babalora onekin, esandako guztia sinisten jok eta.*



JOSU OKINA

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

| | |
|-----------------------------|--------------|
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdia | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Bergarako udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Antzuolako udaltzaingoa | 943 76 62 46 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitalea | 943 03 53 00 |
| Mendaroko ospitalea | 943 03 28 00 |
| Zumarragako ospitalea | 943 03 50 00 |
| Arantzazuko osp. (Donostia) | 943 00 70 00 |
| Santiago ospit. (Gasteiz) | 945 00 76 00 |
| Txagorritxu osp. (Gasteiz) | 945 00 70 00 |
| Basurtoko ospitalea | 94 400 60 00 |
| Galdakaoko ospitalea | 94 400 70 00 |
| Gurutzetako ospitalea | 94 600 60 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| Odol emaleak | 943 76 16 24 |
| Itxaropenaren telefonoa | 943 45 80 05 |

GARRIAOK

| | |
|-----------|--------------|
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

UDALA

| | |
|----------------------|--------------|
| Bergarako udaletxea | 943 77 91 00 |
| Antzuolako udaletxea | 943 76 62 46 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Kiroldegia | 943 76 56 41 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |


ABERIAK / ISTRIPUAK

| | |
|-----------------------|--------------|
| Argindarra. Iberdrola | 901 20 20 20 |
| Grua. Ibai | 608 67 68 21 |

BESTELAKOAK

| | |
|-----------------------------|--------------|
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Idolaz | 943 76 65 08 |
| Jubilatuena Etxea. Bergara | 943 76 21 40 |
| Antzuolako jubilatuena elk. | 943 76 62 71 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |
| Bedelkar | 943 76 04 68 |
| Akulu AEK | 943 76 05 18 |
| Udal euskaltegia | 943 76 44 53 |
| Bergarako notaritza | 943 76 10 73 |

zorion agurrak



Oier Tola
31n 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iban Moreno
31n 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Juan Karlos Garcia
3an 18 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mireiatxo
3an 15 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak eta Unai.



Maialen Goirizelaia
3an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Ainhoa Gallastegi
31n urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Xabier Berasategi
1ean urtebetezeta.
Urte askotarako
aita! Xabier, Izarra,
Josu eta Ana.



Miren Gorosabel
4an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Julen Markez
2an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Idoia Imaz
2an 4 urte.
Urte askotarako!
Aita eta ama.



Oihane Ape
6an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Hurrengo
alean,
apirilaren 7a
eta **13a**
bitartekoan
zorion agurrak
argitaratuko
ditugu.



Mikel Agirre
31n urtebete.
Urte askotarako!
Ane Miren lehengusina eta gurasoak.



Xabi Aranda
1ean 15 urte.
Urte askotarako!
Osaba Juan Kruz eta familiakoak.



Hodei Perez
6an 5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Deiane.



Miriam Isado
2an 10 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta anaia.



Jon Zabala
Sean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Myriam Zabala
1ean 23 urte.
Urte askotarako eta muku bat!
Zuk dakizuna.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

Geralekuak: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jate-txea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

Geralekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.
Eguakitzak: 19:00.

Monja

Zaharrak Domekak: 19:30.

Zaharrak

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizprialde

Domekak: 11:45.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Bergara-Donostia (Autopistatik).

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domeka: 10:00.

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.

Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.

Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.

Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.

Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*.

Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*.

Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15.

Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20,

10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20,

20:05, 20:20, 21:20.

Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 12:05, 13:05, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Domeka eta jaiegunak: 09:00, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45.

Zapatuak: 20:45.

Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10.

Zapatuak: 19:00, 20:00, 21:00.

Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35.

Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35.

Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00.

Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00.

Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35.

Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35.

Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolostatik). Lanegunak: 09:00, 18:00.

Zapatuak: 09:00, 18:00.

Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45.

Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45.

Domeka eta jaieg.: 10:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolostatik). Lanegunak: 07:00, 16:30.

Zapatuak: 07:00, 16:30.

Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Laneg.:

06:30, 08:40, 14:30, 18:10.

Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10.

Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00.

Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00.

Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

hildakoak

BERGARA
Milagros Gisasola Bilbao
Martxoak 25
Margarita Martin Blazquez
Martxoak 27, 64 urte

jaiotakoak

BERGARA
Naiara Azkarate Martinez
Martxoak 20



MUJIKA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

ANTZERKIA

► **Eibarko XXIII antzerki jardunaldiak:** gaur, eguakitza, "Entiendeme tu a mi"; bihar, zapatua, "Los emigrados"; astelehenean, hilak 3, "Actor busca trabajo"; martitzenean eta eguaztenean "¡Ay caray!" eta datorren eguakitzean, hilak 7, "Novecento". Emanaldi guztiak 20:30etan Unibertsitate Laboralean.

► **Hortzmuga** taldearen "Ipuin kontalaria" umeentzako antzerkia bihar, zapatua, 17:00etan Elorriko Ateneoan.

MUSIKA

► **Jam.** Gaur, eguakitza, **Boikot eta El sueño de Openhiner**, 22:00etan.

► **Banjaluka** taldea gaur, eguakitza, 23:00etan Elgetako Gaztetxean. Mozorro jaia ere izango da. Batutako dirua Mozanbikera bideratuko da.

► **Lirika gauak Elorriko Ateneoan:** gaur, eguakitza, **Javier Solaun** pianojolea, **Susana Cerro** sopranoa eta **Ismael Urizar** tenorea, 22:30etan.

ERAKUSKETA

► **Mugen gainetik** gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako erakusketa domekara arte Kultur Etxean.

ANTZERKIA

Prohibido suicidarse en primavera

- Bihar, zapatua, 22:30etan
- Zabalotegiko aretoan

Virago antzerki talde bergararrak Alejandro Casona egilearen (1903-1965) "Prohibido suicidarse en primavera" antzezlan eskainiko du, bihar, Zabalotegin. Casonak 1937. urtean idatzi zuen aipatutako lana, eta, erbestean zegoela, Mexikon estrainatu zen. Hiru aktutan banatutako komedia da, eta Ariel doktorearen eta zientziagizonaren gorabeherak kontatzen zaizkigu. Zoritzarrak bere familia bortizki jo ondoren, Arielek arimen eritetxe bat sortzea erabakiko du. Bertan, bere buruz beste egin nahi dutenak jasoko dituzte eta eritetxean erabiliko den terapia benetan bitxia izango da. Ustezko suizidei bitartekorik onenak eskainiko zaizkie euren azken nahia gauzatzeko, eta horrek, sendatze magikoak eragingo ditu. Ariel doktorearengana jotzen dutenen artean amodioa, lasaitasuna eta

elkarulertzea nagusituko dira. Misterioa eta fantasia dira komedia honen ardatzak.

Viragok Casonaren lan bat antzeztu izan du aurretik, "La dama del alba" hain zuzen ere, eta oraingoan ere umorearen bidetik jo dute bergarar antzezleek. Leire Madariagaren zuzendaritzapean, Pedro Mujika (*Ariel doktorea*), Imanol Gallego (*filosofia irakaslea*), Usoa Agirre (*Marlene*), Cynthia Fresno (*dama*), Eneida Iturbe (*Alicia*), Miren Azkarate (*Chole*), Aitzol Mujika (*Fernando*), Oihan Vega (*Juan*), Gurutzne Elkoro (*ama*), Lorea Sarrionandia (*Cora*) eta Leire bera (*amorantea*) izango dira taula gainean. Virago duela 10 bat urte sortu zen, arte dramatiko gazteei hurbiltzeko helburuarekin. Orain arte antzeztutako lan guztiak autore klasikoan izan dira.



Artxiboko argazkian, Viragoren antzezlari bateko irudia.

LEHIAKETAK

► **Bergarako XV. Literatur Lehiaketa.** Bergaran jaio, bizi edota lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Lanak euskaraz idatzita izan beharko dira eta adinaren arabera bost

talde bereiztuko dira. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 2an bukatuko da. Argibide gehiago Udaleko Euskara zerbitzuan. 943 77 91 66.

► **III. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Kartelen gaia "Zezenak Bergaran" izango da

eta lanak Kultur Etxean entregatu beharko dira, maiatzaren 22tik ekainaren 4ra bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. Argibide gehiago Kultur Etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

► **Txorimalo lehiaketa**

ARRANO

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE

PANADEROKUA

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

Erramu Zapatuan, apirilaren 15ean, Jardunek antolatuta. Izen-ematea apirilaren 12ra arte izango da zabalik. Adinaren arabera hiru talde bereztuko dira: 14 urtetik beherakoak, 15-50 urte artekoak eta 60tik gorakoak. Txorimaloak ferixan ikusgai egongo dira, 11:00etatik aurrera. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 zenbakian.

► **Gazteak eta arrazakeria XI. argazki lehiaketa.** Debagoieneko 14-18 bitarteko gazteei eta 19-35 urte bitarteko edozeini zuzenduta. Argibideak: 943 77 00 65.

DEIAK

► **Hitzaldia.** UNEDeko "Orientabide psikologikoak" jardunaldiak direla eta, **Marisa Zubillaga** psikologo klinikoak "Psikologia eskolan" hitzaldia emango du bihar, apirilak 1, 9:30etan UNEDen.

► **Xipizarok** udaleku irekiatarako begiraleen izen-ematea apirilaren 7ra bitartean zabalik dagoela jakin arazten du. Informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 76 23 76 telefonora.

► **Elgetako** Gaztetxearen 4. urteurreneko ospakizunen barruan gaur, eguakitza, Txipasi buruzko dokumentala erakutsiko da 22:00etan.

► **Gose greban** diren euskal presoan aldeko enkarteladak egunero, goizez 12:30etatik

13:30etara eta arratsaldez 18:30etatik 19:30etara.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, apirilak 6, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Gazte akanpada** apirilaren 7tik 9ra San Martzialen, gazte mugimendua suspertu edota Gazte Lokalaren inguruko lana berpizteko. Izen-ematea ohizko tabernetan.

► **Eltzikorta**, gose greban den preso antzuolarraren aldeko manifestazioa domekan, 19:30etan Antzuolako plazan. Astelehenean, hilak 3, kontzentrazioa egingo da 20:00etan.

► **Bergarako Gazte Informazio Guneak** jakinarazi duenez, ikasle, irakasle eta nazioarteko gazte txartelak edo aterpekeide-agiria eskuratzeko aukera dago Kultur Etxeko bulegoan. Argibide gehiago Gazte Informazio Gunean. eguen eta eguakitz arratsaldetan eta zapatu goizetan. Argibideetarako: 943 77 91 57.

OHARRAK

► **Udalak** gogorarazten duenez, trasteak biltzeko kamioia hileko lehen eguaztenean pasatzen da. Beraz, trasteak goizeko 8ak baino lehen atera beharko dira zabor guneetara. Erdigunetik kanpoko auzokoek, bezperan eguerdiko ordubata baino lehen abisua utzi behar dute Udaltzainguan (943 77 91 06) kamioia bertatik pasatzeko.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Tres reyes

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Atrapa a un ladrón

Eguena, Forum Cinematographe: 21:30.

ARRASATE. Alai zinema

Tres reyes

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

Toy story 2

Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR. Unzaga

El talento de Mr. Ripley

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztrena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

Toy story 2

Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR. Rialto

El sexto sentido

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

El sexto sentido

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola

El dilema

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Tarzan

Domeka: 17:00.

Golpe de estadio

Eguena, zine-kluba: 20:00.

TRES REYES

Zuzendaria: David O. Russell.
Aktoreak: George Clooney, Mark Wahlberg, Ice Cube. ≥13 urte
1991. urteko Golkoko gerran girotutako filmea. Aliatuak Iraken sartu dira baina George Bush Estatu Batuetako presidentea Saddam Husein salbatzea erabaki du. Huseinen tropak mendekua hartzen ari dira baina soldadu iparamerikarrek ezin dute ezer egin, ezer ez egiteko agindua jaso dutelako. Hala ere, soldadu batzuek bestelako planak dituzte, urre piloa aurkitu baitute. Zer egingo ote dute altxorrarekin?



ATRAPA A UN LADRON

Zuzendaria: Alfred Hitchcock.
Aktoreak: Cary Grant, Grace Kelly. ≥13 urte
Hitchcock zuzendariaren filme ezagun honek hasiera emango dio Forum Cinematographe taldeak antolatutako ziklo berriari. Frantziako kostaldean, Montekarlon, "erretiraturik" dagoen lapur baten gorabeherak kontatzen zaizkigu. Bertan, bere lanbideari eusteaz gain, maitemintzeko aukera ere izango du...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.



INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Koldo Zuazo eibartarrak "Deba ibarreko euskera" liburua aurkeztu zuen martxoaren 24an udaleko pleno aretoan. Zuazok EHUko Euskal Filologia Saileko irakasle da eta liburuan Deba Ibarreko berberten artean dauden berdintasun eta ezberdintasunak jasotzen ditu.

G. Euskara batua euskalkiak baino hobea da, edota alderantziz?

E. Kontua ez da hobea izan ala ez; bata bestea bezain ondo dago. Bakoitzak bere esparru eta funtzioak izatea da garrantzitsuena. Normala ez dena da, Bergaran lagunartean euskara batuan egitea.

G. Euskalkia, zein esparrutan erabiltzearen aldekoa zara?

E. Herriko jardunetan, eskualdeko jardunetan, lagunartean, familian... Eta eskola oso garrantzitsua da horretan. Eskolak ezin dizkio ateak itxi euskalkiari. Askotan gertatu da ondorengo euskalkiaren kalterako: ume batek eskolan bere euskalkian "kuadernoa jausi jata" esatea, etxean honela ikasita, eta irakasleak eskolan "kuadernoa erori zait" esatea, umearentzat txoke handia sortuz. Irakasleak ezer esan gabe umeak berarena ez dela ona pentsatuko du, ona irakaslearena dela, euskara ona azken batean irakaslearenarekin lotzen dugu eta. Hori oso garrantzitsua da, azkenean sena ez delako lantzen eta konfidantza galdu egiten delako norberaren kulturari.

G. Sena aipatu duzu, zertan datza?

E. Hizkuntza bat ikaste txer batean ikastean, pertsona hori gai da ikasitakoa lorito baten antzera errepikatzeke. Baina euskal hiztun

KOLDO ZUAZO

"Deba Ibarreko euskera" liburuaren egilea

"Ez da normala lagunartean euskara batuan jardutea Bergaran"



Koldo Zuazok bailarako hainbat herritan aurkeztu du liburua.

batek hiztun osoa izan behar du, eta hiztun osoa izateko, irizpide batzuk izan behar ditu, esaten duena ondo ala txarto dagoen jakiteko, ez dugu beti Euskaltzaindiaren zain egon behar. Irizpidea izan behar dugu eta hori, sena duenak dauka. Horregatik da garrantzitsua umetatik norberaren berbetia baloratzea.

"Euskal hiztun osoak izan behar dugu eta irizpide batzuk eduki esaten duguna ondo ala txarto esanda dagoen jakiteko"

G. Bizkaieraz jarduten dugunok, ez gaitu euskara batuak akonplejatu?

E. Konplejoak euskara batuaren aurretikoak dira. XVIII. mende hasieran Beterriko euskara indarra hartzen hasi zen eta honen aldeko moda ere bai. Jendea Tolosaldeko euskara erabiltzen hasi zen norberarena baino hobea zelako. Batua-rekin antzera gertatu da, baina batua ez da gure etsaia, gu izan baikara batuari erabilera okerra eman diogunak geure hizkeraren aurretik jartzen.

G. Zela eman buelta horri?

E. Kanpaina bat egin beharko genuke. Gauza bera gertatu zen euskararekin orain 40 urte. Euskaldunok sinestuta geunden gure euskarak ez zuela ezertarako balio eta edozertarako erdara beharko genuela, baina konturatu gara hori ez dela horrela. Orain gauza bera egin beharko genuke geure etxe barruan, euskararen barruan.

G. Honi guztiari nola lotu liburua?

E. Hizkuntza kontuetan jarduten dut nire lanean, eta honetan diharduen batendako Deba arroa oso leku interesgarria da, Gipuzkoa delako baina euskara, aldiz, ez da gipuzkera. Horrez gain, Leintz eta Oñati inguruan, Araba aldera joateko joera handia izan da eta antzina Araban egiten zen euskararen antzekotasunak gordetzen dituztelako.

Konplejuez ere hitz egiten da. Batzuek diote ez direla aldizkarietan artikulua serioak euskalkian idazten ausartzen. Liburu berri honekin, hori gezurra dela adierazi nahi izan dut. Agian, gu ez gara euskalkian idazteko gertatuta egongo, baina euskalkiak, berez, balio du.

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

Haurdun bazaude **LAURA** da zure jantzidenda.

Udaberriko moda gaztea jazteko,
neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale 30

ARRASATE

Tf. 943 79 05 80

Hirigintza, kultura eta ingurugiroa aurrekontuetako inbertsio aipagarrienak

Batzuk oraindik asmo baino ez dira, eta beste batzuk laster gauzatuko dira

Otsailaren 28an 2.000. urterako aurrekontuak onartu zituen Udaltzaren EAJ, EA eta EHren aldeko botoekin onartu ziren, nahiz eta EHk, %100ean nahiko lituzkeenak ez direla zehaztu, legegintzaldian aurrekontuak aurrera ateratze-

rakoan gauzak hobetzeko denbora ere badagoela gaineratu arren. PSE-EE eta PP-ko ordezkariak ez ziren plenera azaldu.

Aurtengo aurrekontua 2.845 milioi pezetakoa da eta hauetatik 795 milioi inbertsioetara zuzenduta dau-

de. Beheko irudiotan, egin-godiren inbertsio aipagarrienetako batzuk daude. Hauetako batzuk oraindik asmo baino ez dira, eta beste batzuren kasuan aurre-proiektua edota proiektua egin da bakarrik, ejekuziorako data ziurrik gabe.

Azken batean, legegintzaldiko lehenengo urtea izanik, proiektuak asko izaten dira (proiektuak idazteko bakarrik, 60 milioi pezetako partida bideratu da), baina horrek ez du esan nahi proiektu denak gauzatuko direnik.



SANTA ANA ERMITA ETA ERROTALDE PARKEA

Ermita konpontzen joan zen astean hasi ziren. Osorik konponduko da. Aurrekontua: bederatzita milioi. Parkearen ordenazioa ere egingo da bigarren fase batean. Parkea txukuntzeaz gain, Kultur Etxe osteko eraikina konponduko da eta agian Jardunen egoitza bihurtu.



SANTA MARINA ATZEKO PLAZA

Proiektua eginda dago, eta data zehatzik ez badago ere, Santa Marina plazako lanak laster hasiko dira. Aurrekontua 40 milioi pezetakoa da. Santa Marina atzeko zabalgunea plaza bihurtuko da. Zurraderoko larunbatetako azokatxoak bertan kokatzeko asmoa dago.



ANGIOZARKO BEHEKO KALEA

Asfaltatu eta txukuntzeko 15 milioi pezeta. Bide batez, lur azpitik joaten diren gas, ur eta antzeko tubo guztiak lurpean sartuko dira. Iaz, zabaldu egin zen errepidea (13 milioi); hau bigarren fasea da. Lanak aurten egingo dira, data zehatzik ez dagoen arren.



SAN MARTZIALEN MAHAI GEHIAGO

Orain dauden mahaiak kendu eta 20-25 berri jarriko dira. Bestalde, San Martzial egunean partikularrek ezingo dute mahairik ipini eta guztiak udalean alokatu beharko dira.



ROCK TALDEEN SEMINARIOKO EGOITZA ETA JARDUN

Lokala botako da eta bertako musika taldeei Jardunen bulegoetan, Kartzela Zaharrean, hiruzpalau gela lagatzea aztertzen ari dira. Jardun, Errotalden berereraikiko den Kultur Etxe osteko egoitzara joango litzateke. Partida irekita eta aurreproiektua eskatuta daude.



SEMINARIOA, ELIZA IZATETIK AUDITORIO IZATERA

Auditorio/antzoki bihurtu nahi da. Oraindik aurreproiektua egin gabe dagoen arren legegintzaldi barruan egiteko asmoa dago. Estatua da Seminarioaren jabe, eta udalak erosteko harremanetan dihardu.



GORLARA URA ETA KANTINA INGURUA ATONDU

Aurrekontua: 30 milioi. Ura eramateko lanetarako, 20 milioi aurreikusi dira. Atontze lanetan, errepidea konpondu, mahai gehiago jarri eta zuhaitzak ere landatuko dira. Lanak aurtan hasi eta bukatzeko asmoa azaldu du udalak.



ZABALOTEGIKO ARETOAREN KONPONKETA

Birgaitzeko 20 milioi eta ekipatzeko 6 milioi. Eskenatokia txukundu, 2. pisua anfiteatro bihurtu, kamerinoa, kontrol gela, sarrera/irteera eta abar egingo dira. Butaka berriak, teloia, soinu sistemak... jarriko dira. Asmoa, birgaitzea, behintzat, aurtan hasi eta bukatzekoa da.

MUGERTZAKO ERREPIDEA ZABALAGOA

Errepide ondoko bi etxeak botako dira bidea zabaltzeko. Aurrekontua: 18 milioi. Bota ostean, erreka ertzetik hurbilago berriak eraikiko dira (kopurua ez da zehaztu). Hauek, auzoan dauden gainetarako etxeen lerrokadurari jarraituko diote. Udala jarri da lanak kudeatzeko enpresa eraikitzaile batzurekin harremanetan.



LUR SAILEN EROSKETA

150 milioi pezeta inbertituko dira lursailetan. 79 milioi gastatu dira, dagoeneko, Mayc parean kalifikatu gabeko 26.000 m² Gabiria-Torre eta Gabiria-Gaiñekoa etxaldeein erositak. Erabilera ziurtatu gabe dagoen arren, baliteke etxeak eraikitzeko izatea. Orain, besteak beste, San Juan, Benta Berri eta Impreci inguruan lur gehiago erosteko aukera aztertzen dabil udala; kalifikatu bariako lurra hauek ere.

HERRI OSOKO PLANO TOPOGRAFIKOAK

Soporte informatikoa hobetzeko, 30 milioi pezetako partida dago aurtengo aurrekontuan. Herriko edozein gunetan obrak egiteko orduan tokian tokiko plano topografikoak egin beharrean, enpresa espezializatu batek (aukeraketa lehiaketa publiko bidez egingo da) herriguneko plano topografiko osoa prestatuko du aurrerantzean lana aurreratzeko asmoz. Ondoren, euskarri informatikora pasatuko da, udaleko langileek eskuragarri izan dezaten.

Ingurugiroari eskainitako astea asteleheneetik aurrera

Helburua, naturarekiko sentsibilizazioa bultzatzea da

Udaleko Ingurugiro batzordeak Ingurugiro Astea antolatu du datorren astelehenean, hilak 3, hasi eta datorren igandera arte. Lehenengo aldia da udalak ingurugiroa oinarri hartuta, hainbat ekitaldiz osatutako astea antolatzen duena.

Ingurugiro Astearen helburua, naturarekiko sentsibilizazioa bultzatzea da, eta erakusketa, hitzaldiak eta jaialdi batez baliatuko da horretarako.

Animalien hatz markei buruzko erakusketak eman go dio hasiera datorren astelehenean Ingurugiro Aste-



47 animalien hatz markak egongo dira erakusketan; Europako erakusketa osatuenetakoa.

ari. Bertan, 47 animalien hatz markak ikusi ahal izango ditu Kultur Etxera hurbiltzen denak, Europa mailan

dagoen erakusketa hobere-netariko. Apirilaren 9ra bitartean egongo da irekita: astean zehar 18:00etatik 21:00etara; zapatu eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara.

Apirilaren 5ean, asteazkena, eta 6an, osteguna, bi hitzaldi egongo dira. Lehenengoan, Zigor Arteaga biologoak Euskal Herriko ingurune naturalez jardungo du, eta ostegunean, Gasteizeko udaleko Ingurugiro Azterketarako Zentroko tekniko batek "Agenda 21" delakoa izango du hizpide. Bi hitzaldiak Kultur Etxean izango dira, arratsaldeko 19:30ean.

UDABERRI JAIA

Udaberri jaiak ere izango dira naturarekiko sentsibilizazio astean. Eguakitzean, hilak 7, eta ekitaldi nagusi gisa, Mikel Urdangarin kantari bizkaitarrak kontzertua eskainiko du Kartzela Zaharrean, gaueko 11:00etan. Sarrera, 500 pezeta; Pol-Pol eta Kultur Etxean salgai.

Udalak dirulaguntzak Mozanbikera

Mozan**bikera** 300.000 pezetako dirulaguntza bidaltzea onartu zuen osoko bilkurak joan zen martxoaren 20an egindako plenoan. Laguntza mota honetarako aurrekontuetan 100.000 pezetako diru izendapena dagoen arren, 300.000ra luzatzea onartu zen EH eta EAJ-EA alderdien oniritziarekin. PP eta PSE-EE ez ziren plenoan izan.

Alvaro Esparzaren aurkako pintadak

Udal Gobernu Batzordeak, ohar batean azaldukoaren arabera, gehiengoz, salatu eta kondenatu egiten du Alvaro Esparza PSE-EEko zinegotziaren aurka azalduko pintadak. Pintadak martxoaren 17tik 19rako asteburuan egin ziren, Arrese etxearen fatxadan, eta bertan "Esparza te vamos a matar" irakur zitekeen.

Hizkuntzak ikasteko aukera UNEDen

Hizkuntza akademia izango du UNEDek datorren ikasturtean. Bertan, euskara, ingeles, frantses, alemaniera, galiziera eta katalan eskolak emango dira. Egitasmo hau urrutiko eskola ofizial baten parekoa izango da. Helburu nagusia, akademiaren prezio garestiak kontuan izanda, hizkuntzen ikaskuntza demokratizatzea da.



Herriko parkeetako zuhaitzak identifikatu egingo dituzte bi ikaslek.

Inguratzen gaituen natura

Ingurugiro eta basogintza arloan udalak dituen zenbait lan aurrera eramateko asmoz, Murgiako Nekazaritza Eskolan ikasten diharduten bi bergarar praktiketan hartu ditu.

Martxoaren 20an hasi ziren lanean eta praktikak hiru hilabetez luzatuko dira. Bi ikasleek honako lanak egingo dituzte: batetik, Arriuriaga, Errotalde, Usondo eta Errekaldeko parkeetan ibilbide botanikoak antolatzeko bertan dauden zuhaitzak identifikatu; bestetik, hiri lurretan dauden zuhaitzen inbentarioa egin, dagoena ezagutu, babestu eta landaketa berriak proposatzeko asmoz, eta azkenik, herri lurra antolatzeko proposamena egin. Azken lan honen helburua, aurrera begira gestio egokia planteatzea da, eta hiru ardatzetan oinarrituko da: herri lurren deskribapena, hurrengo urteei begirako gestio proposamena eta herri lurren antolaketa proposamena.

Hies Ekimena desagertu da Hies Berriri bidea lagatzeko

Hies Ekimena, Deba-
goieneko Hiesaren aurkako
taldea desagertu egin da.
Hamabi urte eman ditu Hie-
sari buruz informatzen, eta
prebentzio eta kontzietzia-
zio lanetan. Taldea desager-
tzeko arrazoia, medikun-
tzan ematen diren aurrera-
penetan datza. Honela, eta
bizi dugun garaiari hobeto
eusteko Hies Ekimena desa-
gertzen bada ere, Hies Berri
talde berriak hartuko du le-
kukoa, denbora berriekin
lotuago dagoen taldeak.

Oraindik aurkeztu ez
bada ere, denbora laburre-
an emango da ezagutzera
Hies Berri taldea. Talde be-
rriak, Hies Ekimenaren on-
dorengoa izanda, informa-
zio, prebentzio eta kon-
zientziazio lanetan jarrai-



Hamabi urte eman ditu Hies Ekimenak lanean.

ARTXIBOA

tzeaz gain, tratamendu me-
dikoek inguruko informa-
zioa zabaltzeko lan berezia
egingo du.

Bestalde, pentsioen al-
deko borrokan ere jardungo

du Hies Berriek, izan ere, Ad-
ministrazioak, Hiesa duten
pertsonei jasotzen duten ba-
liaezintasun pentsioa kent-
zeko proposamena egin
baitu.

Ikasleen greba orokorra deitu da apirilaren 6rako

Ikasle Abertzaleak
taldeak dei egin die
ikasleei datorren astear-
tean, hilak 6, greba oro-
korra egin dezaten,
"Ikasleok abian euskal-
duntzea" lelopean.

Oinarrizko lau hel-
bururekin egin da dato-
rren martitzeneko deial-
dia: unibertsitatean eus-
karaz egiteko, lanbide
heziketean euskaraz egi-
teko, ikasle euskaldunak
edukin euskaldunak
edukitzeko eta erdal
eredua kanporatzeko.
Greba egunean, bailara
mailako bi manifestazio
egingo dira Bergaran:
11:30ean eta 19:00etan;
plazatik aterako dira.

Bestalde, joan zen
eguakitzean, hilak 24,
borroka eguna egin zu-
ten ikasleek.

Sabai zatia jausi zen Simon Arrietan

Irala zinema zaharraren aurrean sabai zatia erori egin zen
joan zen eguakitzean. Arratsaldeko 17:15ak aldera erori zen, Si-
mon Arrieta plazan jende ugari zegoela. Hala eta guztiz ere, ez
zen inor zauritu. Antza denez, Irala zinemaren gainean eraikitzen
ari diren etxebizitzetako lanetan erabiltzen den makina batek
eragin zuen sabaia erortzea. Aipatu makinak, ur asko erabiltzen
du eta eraikina bera zaharra denez, ura filtratu egin da, eta, on-
dorior, sabaia busti eta jausi.



Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza
obra social*

Berrigara

404 zenbakia.
2000ko martxoaren 31.

Errotalde Jauregia, 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Alex Labaien, Mariipi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Párriz, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Ecuestre aldizkaria

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

MILA ESKER BERGARAKO HERRIARI

Ondo dakizuen moduan, oso egun txarrak pasatu ditugu Raulek Aita Mennin jarrai zezan behar beste diru batu ezingo genuelakoan, baina, beste behin ere, Bergarako solidaritate handiz erantzun dio herritar baten laguntza deiarri.

Raul gero eta hobeto dago, eta horrek aurki geure artean bitzta arrunta egiten ikusiko dugun itxaropena ematen digu. Dena den, oraindik ere denbora behar du ospitaletik irten aurretik.

Denok egin dugu geure esku zegoena, eta, dagoeneko, solidaritate horren fruituak ikusten ari gara.

Raulen, gurasoen, senideen eta lagunuen izenean, eskerrik asko lagundu duzuen guttiori, bergarar zein kanpotarrei.

Hasieran jarritako helburu guztiak bete ditugu, eta poztuko gintuzke jakiteak batutako diru guztia erabili beharrik ez dagoela, horrek Raulen sendatze-prozesua amaituta legokeela esan nahiko bailuke, eta, era berean, laguntzatxo bat lagako luke inoiz horrelako beste kasuren bat emango balitz ere.

Honako hau da antolatuta-ko ekintzen bidez jasotako di-

ru-kopurua: saldutako boletoak (6.000.000 pezeta), aerobic maratokia (315.000 pezeta), moda-desfilea (768.000 pezeta), Euskal Telebista (201.600 pezeta), lan-ordua (5.427.000 pezeta) eta donazioak (2.000.000 pezeta). Guztira, 14.711.000 pezeta.

Mila esker den-denoi!

Raulen lagunak

MADALENA PLAZAN ZEUDEN EZKIAK

Udaleko brigadak aurreko astean Madalena enparantzan lau ezki bota zituela eta, kexa ugari jaso dira, eta Ingurugiro Batzordeak honako argibideak eman nahi ditu:

1.- Udal brigadako langileak, inausketa lanak egitera joan zirenean, ezkiak barrutik usteltzen hasita zeudela konturatu ziren.

2.- Ingurugiro Batzordeari jakinarazpena egin, eta azterketa tekniko baten ondoren, neurriren bat hartzea eskatu zen. Azterketa teknikoaren arabera, zenbait tekniko bertan egon zen, lau ezkiaren usteltze-prozesua nahiko aurreratuta zegoen. Orain dela zenbait urte egindako lepatze-lanen (tras-

motxatzea) ondorioa da barrutik usteltzearen kontua. Beraz, Udalak badu egoera kaskar honen inguruko erantzukizuna.

Inongo etorkizunik ez zuten zuhaitzak ziren eta, gainera, oinezkoendako eta kotxeendako arriskutsuak izan zitezkeelakoan hartu genuen botatzeko erabakia. Gainera, gure iritzia ingurugiro arloan lanean ari den Mendia Bizirik taldearekin kontrastatu genuen. Egia da, era berean, bizilagunei inongo galdeketa ez diegula egin.

3.- Botatze-lanez gain, beste bi erabaki hartu dira: alde batetik landaketa berria egitea (zedro bat eta haritz bat sartuko ditugu) eta, bestetik, ebakitako enborrak udaleko lur-sailetan uztea, enbor zaharren inguruan sortzen diren ekosistema bereziei daukaten garrantzia emateko.

4.- Azkenik, oso positiboak iruditu zaizkigu gai honen inguruan sortu diren eztabaida eta kexak, honek erakusten baitu sentibilitatea badagoela eta herritarrek udaleko erabakietan parte hartu nahi dutela.

*Aitor Aranzabal
Udaleko Ingurugiro
batzordeburua*

tira biraka oihan vega



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Trabarik eragin dotsu Ibargarai kalia itxita egotiak?**Jose Mari Larrañaga**

Ez. Garajia Zurradero kalian daukat, baina ur zikinak ebatzeko baldin bada, egin biharreko lanak die.

**Ritxar Carmona**

Banatzaille egitten dot lan, eta banaketak egiteko lehen baiño buelta haundixagoak emon bihar dittugu kamioiarekin.

**Ainhoa Zalakain**


Aparkaleku gutxiago dagoela igartzen da. Simon Arrietan bizi naiz eta gabetan lehen baiño toki gutxiago dago aparkatzeko.

**Mari Sol Diaz**

Urbanuan igarri dot asko: San Lorentzon bizi naiz, eta orain Pakearaino jun bihar naiz hartzera. Bestela, ez dot apartekorik igarri.

**Belen Ormazabal**

Egunero lanera juteko Ibargarain hartzen ninduen lankidiak. Orain gora eta behera ibili biharra izaten dot eurokin gelditzeko.

**Markel Lete**

Ez. Ibargarain bertan bizi naiz, eta egixa esan, kalia moztuta dagoenez, lasaitasun haundixagoa dago.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

SAN MARTIN PLAZA ITXITA ASTEBURUAN

A. Unamunok deitu digu aste honetan, Ibargarai kalean egiten ari diren obrak direla eta, San Martin plaza astebukaeran trafikoa- rendako itxita egotearen kontra protesta egiteko. Unamunok dioenez, herri erditik San Antonio aldera joateko, derrigorrez, bariantera irten beharra dago zapatuetan eta domeketan, eta hori gehiegizkoa iruditzen zaio. Bere proposamena hau da: Ibargarai lanek irauten duten bitartean, San Martin plaza trafikora zabaltzea astebukaeretan, kotxea hartu behar dutenei gauzak errazte aldera. A. Unamunok dioenaren arabera, obrekin trafiko kontua erabat nahastuta dago, baina San Martin plaza zabaltzearekin gauzak zertxobait konpondu egingo lirateke.

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefona Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

Bolu
liburutegia
Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikuluak
Bergarako oleo eta lumatxoak
Koldo Elizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

adituen esanetan

Bitartekotza banaketetan

Gaur egun gero eta bikote gehiago banantzen da, eta sententzia zuzenagoak lortu ahal izateko, beharrezkoa izaten da sententzia horietan arazo guztiak islatzea. Honen ondorioz, psikologoaren figura gero eta ohikoagoa da epaitegietan. Orain arte bikote gehienek euren kasua abokatuen esku uzteko ohitura zeukaten, eta askotan, soluzio batera iritsi beharrean, bikoteak elkarren aurka egitea besterik ez zen lortzen. Bitartekotzarekin bi aldeak hitz egiten jartzen dira, arazoaren

erantzukizuna bere gain hartzen dute eta beraiek konpontzea da helburua. Horretarako, psikologoak ondo komunikatzeko bitartekariak jartzen ditu, askatasunean berba egiteko, galderak egiteko eta emozioei ere bere tarte eskaintzeko, ahal den neurrian elkarriketa arina eta erraza lortuz. Azken helburua hitzarmen erregulatu batean heltzea litzateke. Hitzarmen hauek askoz egonkorragoak dira, eta dauzkagun estatistiken arabera, oso gutxitan



JOSE RAMON FERNANDEZ

Psikologoa

"Bitartekotzarekin bi aldeak hitz egiten jartzen dira, arazoaren erantzukizuna bere gain hartzen dute eta beraiek konpontzea da helburua"

bitartekaritza prozesu konstruktiboa da, eta adostasun zein desadostasun puntuak izaten dira aztergai, kontentsuatuak hitzarmen bat lortzeko helburuarekin. Normalean, asteroko laupabost saioekin nahikoa izaten da hitzarmen batera heltzeko, eta 12tik gora saio behar badira, bitartekaritza apurtu egiten da. Azkenik esan Euskal Herriko Familia Bitartekaritza Zentru bakarra Bilbon dagoela eta bestela profesional pribatuetara jo behar dela.

ematen dira salaketak aipatutako hitzarmenak ez betetzeagatik. Azken baten, bi aldeak dira akordio hori hartzen dutenak.

Bitartekotzaren abantailen artean, afektaturiko aldean (bikotea, seme-alabak etabar) kostu emozionalaren gutxitzea aipatu daiteke. Era berean, kostu ekonomikoa ere baxuagoa da eta beste abantaila bat hauxe litzateke: interesaturiko aldeek dutela hitzarmenaren kontrola eta krisian dagoen familia hori berregituratzeko aukera dagoela. Familia



Bitartekotzarekin afektaturiko aldean kostu emozionala gutxitzen da. ARTXIBOA

bergarako errota

OZAETA ERROTA

Bergarako parrokiako kontu-liburuetan 1570eko abenduaren 25ean elizarendako egindako diru-bilketa baten berri jasotzen da: "Pedro, Oceta-ko errotriarik dukat bat".

Martinez de Isastik 1625ean "Ozaeta etxea, ahaide nagusiena" aipatzen du Bergaran.

1908ko GAOean (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean) hauxe irakur dezakegu:

"Eteban de Irizar jaunak, Bergarako herritarrak, eta Ozaeta errotraren jabeak, ubidea desbideratzeko eta gaur eguneko ubide zati bat estaltzeko baimena eskatu zuen.

Horretarako bustubide berri bat egingo da errotraren lursailetatik abiatuta, lursailean zehar, uboldeetan ureztatzen den ubarritan zehar errekaraino; kanal hori ganga batez estalita egingo da; eta gaur eguneko ubidea horma baten bidez itxiko da eskatzailearen jabetzapeko plazatxoan. Eta herritarrei jakinarazten zaie".

1909ko uztailaren 23an argitaratu zen GAOean aipatutako baimen hau.

Urte batzuk geroago, 1918an, Esteban de Irizar berak baimena eskatu zuen 0,30 metroko altuerako altxa mugigarriak jartzeko urtegiaren gainaldean zegoen 0,40 metroko altuerako mazizo baten gainean. Eta guzti hori Otzaetako errota edo zerra mekanikorako.

Urtebete beranduago eman zen baimena:

"aprobetxamendu hau zerrategiaren premiei erantzuteko, eta indar borren zati bat Zubiaurre auzoko argiteria publikorako izango da".

Inguru horretara egin genuen bisitan, Lorenzo Loidi Angiozarko auzotarrak esan zigun euren lurretan eraiki zela Altos Hornos lantegia eta ezin zuela esan noiz laga zion errota lanari.

KOKAPENA: Bergaratik Arrasaterako eta Bergaratik Angiozarrerako bideen elkartunean, Altos Hornos lantegiak hartutako lursailetan.

Antxon Agirre Sorondo



Elurretan hasitako udaberria

Udaberrian sartu berri garenez, seguru asko eta asko dagoeneko kamiseta mauka motzean pentsatzen ari zela. Eta eguraldiak zer ekarriko eta **elurra** joan zen martitzenean. Asko ez zuen egin, baina begira eguazten goizean nola zeuden **Gorlako zelaiak**.



Udal Euskaltegikoak sagardotegian

Udal Euskaltegiko **50tik gora lagun** joan zen ostiralean Tolosako Isastegi sagardotegian izan ziren. Urtero joaten dira sagardotegira eta argazkiko aurpegieta ikustea besterik ez dago zein ondo pasatzen duten. **Itxaro Aranzabal eta Nerea Telleria** soinu eta pandero joleak ere eurekin joan ziren. Bestalde, **Edurne Pasaban** mendizalea Everestera igo aurretik sagardotegi berera joan zen eta Udal Euskaltegiko ikasle zein irakasleek mendizaleari animoak emateko aukera izan zuten.



Pintadak Santutxun

Santutxun, **Kapirixok jarritako hainbat panel** informatibotan, ehizaren aldeko pintadak agertu dira. Pintadak honako testua daukate hizki beltzez idatzita argazkian ikusi daitekeen moduan: "eiza bai" "caza si".

Zaldien ostatua

Zaldiak zaindu eta hezteko zerbitzua eskaintzen dute Benta baserrian

Bergaran zaldiak dauzkan bakarra ez den arren, Juan Ignacio Regorigo da era honetako zalditegia daukan bakarra, eta baita hemen inguruko zaldi-ferratzaile eta hezitzaile bakarretakoa ere. Elosuko Benta baserrian dago bere zalditegia, eta gaur egun 14 zaldiren ardura dauka. Regorigok Benta baserrian eskaintzen duen zerbitzua irtenbide paregabea da zaldi bat edukitzeko ametsa daukan, baina zaldi hori non eduki ez dakien jendearendako, eta baita zaldia hezi nahi dutenentzako ere.



Juan Ignacio hemen inguruko ferratzaile bakarretakoa da, eta baserrikerik baserri ibiltzen da zaldiak ferratzen.

Hurrengo orrialdean, Benta baserriko zalditegia, 14 zaldirendako tokia daukana.

Duela hamazazpi urte inguru piztu zitzaion zaldiekiko zaletasuna Juan Ignacio Regorigori. Garai hartan, zaldi-eskola bat zegoen Benta baserrian bertan, eta haraxe joaten hasi zen, zaldian ibiltzera. Baina zaldi-eskola honek ez zuen arrakasta handiegirik izan, eta denbora gutxira itxi egin behar izan zuten. Ordurako zaldiekiko sekulako zaletasuna hartuta zeukan Juan Ignaciok, eta baita zaldi bat erosteko gogoia ere. Behin beharrezkoa zuen dirua aurreratu zuenean, zaldia erosi eta Benta baserriko instalakuntzak alokatu zituen bere zaldia edukitzeko. Orditik hona denbora asko pasatu da, eta, bien bitartean, ikastaro ugari egin du. Ondorioz, zaldiak ferratzen eta hezitzen trebea dugu gaur egun, Regorigo. Pixkanaka-pixkanaka zaldi gehiago erosiaz ere joan da, eta Benta baserriko instalakuntzak txukundu ditu. Dena den, ez da zaldiak zaintzen aritzen den bakarra, Fernando Regorigo bere aitaren eta Benta baserriko Emeterio Gabilondoren laguntza ere ezinbestekoa gertatzen zaio eta.

BENTA BASERRIA ZALDIEN OSTATU

Gaur egun, asko dira zaldi bat erosi luketenak. Baina jende gehienak arazo berberarekin topo egiten du: "non eduki zaldia?" Toki egokia topatzea ez da lan erraza. Ikuiluaz aparte, kanpoan ibiltzeko zelai eta inguru aproposak behar ditu zaldiak behar bezalako zainketa bat eman nahi bazaio. Regorigok berak ere arazo horixe izan zuen hasieran, bere lehenengo zaldia erosi zuen garaian. Orain, Benta baserria alokatuta daukanez, eta bertan hamalau zaldirendako tokia dagoenez, nahi duenaren-



tzat zaldia bertan eduki eta mantentzeko zerbitzua eskaintzen du Elosun. Juan Ignaciok esaten duen moduan, “zerbitzu honekin, diru apur bat ateratzen dut, nire hobby honek sortarazten dizkidan gastuei aurre egin ahal izateko”. Zerbitzu hau, beraz, ez da negozio bat Regorigorentzat, bere zaletasuna autofinantziatzeko bide bat baizik. Diru kopuru baten truke, zaldia edukitzeko toki apropos bat eskaintzeaz gain, Juan Ignacio bera arduratzen da zaldiriari jaten ematearekin, orraztearekin, garbitzearekin, kanpora ateratzearekin e.a. Ikuliez aparte, hondartzatik ekarritako hareaz betetako pista bat dauka Bentak aurrealdean, eta baita zaldiak beraien erara ibili ahal izateko zelai zabal batzuk ere. Hala ere, Juan Ignaciok esan digunez, zaldiak askoz gustorago ibiltzen dira hareetan, hankendako zelaia baino biguinagoa eta erosoagoa baita. “Ostatu” zerbitzu honetaz aparte, zaldi bat erosi nahi eta nora jo ez dakitenei zaldia saldu edo, besterik gabe, informazioa eman ere egiten die.

ZALDIA HEZTEA, PROZESU LUZEA

Esan bezala, duela hamazazpi bat urte piztu zitzaion Regorigori zaldiekiko afizioa, edo berak esaten duen moduan, “pasioa”. Era honetako zalditegi baten ardura izateko eta zaldiak behar bezala zaindu ahal izateko, pasioa sentitu behar da eta. Urte hauetan guztietan gero eta gehiago ikasten joan da, eta ikastaroak ere egin ditu, zaldiak hezten eta ferratzen ikasteko. Hala ere, praktikarekin eta pazientzia handiarekin ikasten ei da hau guztia, bere esanetan.

Gaur egun, hezitzaile trebea dugu Juan Ignacio, eta zaldiak edukitzeko tokiaz gain, zaldiak hezteko eta ferratzeko zerbitzua ere eskaintzen du. Berak azaldu digunez, lan hori zaldia jaiotzen denean hasten den prozesu luzea da, eta fase ezberdinak daude.

Zaldi bat jaiotzen denean, egoera basatian dago, eta jaiotze egunetik bertatik hasi behar da hezitzailearen lana. Lehendabiziko zeregina zaldia otzantzea da, hezitzailearengan konfidantza izan dezan lortzea. Kasu askotan, kapatu egin behar izaten dira zaldi arrak, otzandu ahal izateko. Regorigoren arabera, “zaldiak ez du batere sufritzen, eta zaldian ibiltzea lortu nahi baldin baduzu, zaldia kapatu beharra daukazu. Gutxitan gertatzen da kapatu gabeko zaldi otzan bat aurkitzea.” Zaldiak hezi-

tzailea ezagutzea, berarengana hurbiltzen eta ukitzen lagatzea da lehen pausua. Bigarrena, berriz, hezitzailearen aginduei jarraituz lasai-lasai ibili edo pasiatzea da. Regorigoren esanetan, “hau guztia ez da ematen duen bezain erraza, ostiko eta kolpe asko jaso behar

“Zaldi bat heztea ez da ematen duen bezain erraza, ostiko eta kolpe asko jaso behar izaten da”

J.I. REGORIGO



izaten dira zaldia zeureganatu arte". Behin zeureganatzen duzunean, berriz, goi mailako hezitzailea izan beharra dago, Regorigo bezala, zaldiari dantzan eta argazkian ikus daitekeen bezalako saltoak egiten irakasteko.

FERRATZAILEAREN OFIZIO ZAHARRA

Orain arte aipatu dugunaz gain, hemen inguruan dagoen ferratzaile bakarretakoa dugu Juan Ignacio, eta baserririk baserri ibiltzen da zaldiak ferratzen. Galtzean dagoen ofizio bat dirudien arren, beharrezkoa den lanbide bat ere bada, zaldiak egon badaudelako, eta zaldiak ferratu egin behar direlako. Zaldiek gure azazkalekin konpara daitezkeen apatxak edo apoak dauzkate, eta horiek babesteko izaten dira ferrak. Apatxak, azazkal moduko horiek luzatu egiten direnez, hiruzpalau hilabetero ferrak kendu, apatxak moztu eta ferra berriak jarri behar izaten zaizkie. Zaldiekiko zaletasuna hartu zuenean egin zuen zaldiak ferratzen ikasteko ikastaroa.

**Zaldi bakoitzak
15.000 pezeta
inguruko kostua
dauka hilero
janariari bakarrik
dagokionez**

ZALDIAREN GASTUAK

Juan Ignaciok esan digunez, eskainitako zerbitzuen prezioa bezero bakoitzarekin negoziatzen du, eskatutakoaren arabera. Baina Bentako ostatu gastuak alde batera lagata, janariari bakarrik dagokionez, zaldi bakoitzak 15.000 pezeta inguruko kostua dauka hilero. Horri albaitari, botika etabarren gastuak gehitu behar zaizkio. Zaldiek "pentsua, belarra, alpapa, barazkiak, fruta... denetik jaten dute". Horretaz aparte, Juan Ignacio bezalako aditu batek zaldia heztea nahi izanez gero, gastuak igo egiten dira, baina berak esan zigun bezala, gastuak zerbitzu eta zaldi bakoitzaren araberakoak izaten dira. Izan ere, bere esanetan, "batzuetan, bizpahiru hilabete

ko lana izan liteke zaldia otzantzea; beste batzuetan, oster, sei hilabetekoa izan liteke zaldia apaltzeko prozesu hau. Ez dago jakiterik; zaldi bakoitzak bere izaera dauka, gizakion moduan. Badira, berez, izaera gogorra duten zaldiak, eta baita otzanagoak direnak ere."

Juan Ignacio Regorigo goi mailako zaldi hezitzailea da. Hainbat ikastaro egiteaz gain, urte askotako esperientzia dauka. Argazkian, bere zaldietako bat, jabearen aginduei jarraituz, bi hanketan jartzen dela ikus daiteke.

ZALDI ESKOLAREN IDEIA, BAZTERTUA


Askotan pentsatu du "pikadero" edo zaldi-eskola bat jartzea, baina ez ei da batere negozio erraza. "Loteria tokatuz gero, benetan pentsatuko nuke, baina, oraingoz, tabernako negozioarekin jarraitu beharko dut". Alde batetik, instalakuntza guztiak berritu beharko lituzke, eta horrek inbertsio garrantzitsua suposatzen du, eta bestetik, "negua luzea da, eta nor etorriko litzateke neguan zaldian ibiltzera?". Bere esanetan, benetan ederra, ametsa, izango litzateke hortik bizi ahal izatea, gustokoa duzun horretan lan egitea ametsa baita. Baina, oraingoz, behintzat, ez dugu izango Bergaran zaldian ibili ahal izateko horrelako tokirik.<




Txorimalo lehiaketa



Gehienez 8 partaide taldeko
Hiru maila: 14 urtera artekoak, 15-60 urte
bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak



**Bergaran, Erramu Zapatuan,
apirilaren 15ean, sari bikainak!**



Lora eta hosto prentsatuaren ikastaroa

Maiatzaren 2tik ekainaren 10era

Bi talde: A: martitzenetan 15:30-17:30 eta zapatuetan 09:30-11:30

B: martitzenetan 18:30-20:30 eta zapatuetan 11:30-13:30

Prezioa: bazkideek, 4.500 PTA; gainerakoek, 5.000 PTA

Izena emateko azken eguna: apirilaren 18a

Herriko 14 lagunek bukatu zuten Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia

Azken Behobia-Donostia lasterketan gertatu zen bezala, Ion Aranzabal izan genuen herriko onena domekan jokatuako Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian. Antolatzaileek emandako datuen arabera, herriko 14 lagun helmugaratu ziren, eta Ion Aranzabal 36. postuan sailkatu zen, ordubete, 12 minutu eta 22 segunduko denborarekin.

Lasterketa honen zazpigarren edizioan partehartzaile-kopuruaren errekorra hautsi zen, 827 lagunek parte hartu zuten eta. Irabazlea, Simon Casimil keniatarra izan zen, ordubete bi minutu eta 42 segundurekin, Rui Veira portugaldarraren (1:03:15) eta Venice Chelule keniatarren (1:03:17) aurretik. Keniatarrek lasterketaren 16. kilometroan jo



Ezkerrean, Asier Cuevas, lehen euskalduna domekako proban.

DV

zuen erasoia, eta atzean laga zituen berarekin zihoazen gainerako faboritoak. Lehen euskalduna Asier Cuevas izan zen, 12. postuan (1-07-17). Emakumezkoetan, ostera, Rocio Riosek egin zuen denborarik onena (1-12-53), Estitxu Urrutia eus-

kalduna (1-15-44) hirugarren postuan iritsi zelarik.

HERRIKO EMAKUMERIK EZ

Herrikoei dagokienez, Ion Aranzabalen atzetik, Basilio Aranburu (71. postuan), Aitor Eraña (98.ean) eta Aitor Rementeria (121.ean) heldu

Bergarren sailkapena

| | |
|--------------------------------|---------|
| 36. Ion Aranzabal Ezpeleta | 1:12:22 |
| 71. Basilio Aranburu Mujika | 1:16:22 |
| 98. Aitor Eraña Arroiabe | 1:18:24 |
| 121. Aitor Rementeria Gantxegi | 1:19:55 |
| 201. Roberto Zurro Usabiaga | 1:23:42 |
| 205. Javier Moreno Castelo | 1:23:45 |
| 214. Aitor Laskurain Zubia | 1:24:22 |
| 237. Angel Agiriano Aiastui | 1:24:57 |
| 305. Jose Arribas Benitez | 1:27:19 |
| 435. Igor Labaien Olasolo | 1:32:16 |
| 557. Joseba Larrañaga Azkoitia | 1:37:35 |
| 653. Carlos Telleria Viana | 1:43:06 |
| 654. Joaquin Gonzalez Martinez | 1:43:06 |
| 656. Imanol Elkoroberezibar | 1:43:12 |

Iturria: Antolaketa. Argibide gehiago: www.lander.es/media-maraton web orrian

ziren. Behobia-Donostia lasterketak herriko korrikalari gehiago biltzen ditu urtero, baina gero eta gehiago dira Azkotia-Azpeitia proba-ira joaten diren antxixikalariaiak. Oraingoan, hala ere, emakumeen artean ez zen bergararik izan.

Ion Unamunok txirrindularitza laga du

Ion Unamuno 21 urteko txirrindulari bergararik ez du Saunier Duval taldean jarraituko, aste honetan txirrindularitza utziko duela iragarri baitu. BERRIGARAFI adierazitakoaren arabera, "erabakia hartzea zaila izan da, baina nahiago izan dut ikasketen aldeko apostua egitea, txirrindularitza oso sakrifikatua delako eta urte guztian bizikletaren menpe egotea eskatzen duelako. Etorkizunean profesionale-tara iristeko aukera ere hor zegoen, baina azkenaldian ez nengil behar bezala motibatuta eta ilusioa galtzen joan naiz pixkanaka-pixkanaka".

Ion Unamuno herriko promesarik onena genuen, eta iaz Saunier Duval taldearekin fitxatu zuen aurtengo denboraldirako. Aurretik, Born-Jay taldean (bi urtez) eta Iberdrolan (aurreko denboraldian) aritu zen. Gaur egun, Heziketa Fisikoko Majisteritza ikasketak egiten ari da Gasteizen. Ionnek berak esan digunez, "inguruko artean sorpresa sortu du nire erabakiak, eta taldeko arduradunek ere, kirol aldetik, pena izan dela adierazi didate. Eskerrak eman nahi dizkiet ziklismoan aritu naizen urteetan laguntza eskaini didaten guztiei, batez ere, familiako-



Argazkian, Unamuno "Kaxeta"ren eskutik sari bat jasotzen.

ARTXIBOA

ei eta nire lagunei. Orain, beste gauza batzuk egiteko aukera izan nahi dut eta horregatik hartu dut txirrindu-

laritza lagatzeko erabakia, kirol honek, egunero, 24 orduz, sakrifikatzea eskatzen dizulako".



Argazkian, herriko igerilari taldea Nora Olabide entrenatzailearekin.

Bergara Igeri Elkarteko gaztetxoak bikain Tolosan

Bergara Igeri Elkarteko benjamin, alebin eta infantil mailako igerilariak hainbat domina lortu zituzten joan zen zapatuan, Tolosan jokatuak Paco Sanchez Txapelketan. Goiatz Perezek urrezko domina lortu zuen alebin kategorian, 100 metro tximeleta proban. Era berean, Eli Lazpiurrek zilarrezko domina eskuratu zuen, 100 metro bular-igeriketa proban, eta Neritzel Albisuak brontzezkoa, 100 metro crawl-en. Alebinak (1988an jaiotako-

ak) izan ziren Tolosan emaitza onenak lortu zituztenak. Amaia Goienetxek ere hartu zuen parte Paco Sanchez Txapelketan, 50 metro crawl-en eta dominarik eskuratu ez arren, ondo jardun zuen. Tolosako txapelketan Gipuzkoako igeri talde gehienak izan ziren.

Infantilei dagokienez, Amaia Rodriguezek brontzezko domina ekarri zuen, 100 metro bizkarreko proban hirugarren postuan sailkatu ondoren. Eta benjamin kategorian Ana Balenziaga,

Elisa Kortabarria eta Beñat Sanchez izan genituen Bergara Igeri Elkarteko ordezkariak. Nora Olabide taldeko entrenatzailea pozik azaldu zen taldeak Tolosan lortutako emaitzekin.

ZAPATUAN EIBARREN

Astebukaera honetan, berriz, Bergara Igeri Elkartek Eibarko Ipurua kiroldegian jokatu den Udaberriko liga txapelketako proban hartuko du parte. Bertan, infantil mailatik gorako igerilariak izango dira.

Kirol taldeei dirulaguntzak

Kirol zerbitzuak jakinarazi duenez, datorren eguakitzean, hilak 7, bukatzen da 2000. urteari dagozkion dirulaguntzen eskaeretan dokumentazioa gehitzeko epea: federatuen zerrenda, aurreikusita ez zeuden ekintzak eta bestelakoak. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

Eskiatzera joateko irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak apirilaren 21etik 29ra Deux Alpesera joateko eski irteera antolatu du. Interesatuak argibideak jaso ditzakete Pol-Poleko bulegoan, astelehentatik ostegunetara, 19:00etatik 20:30etara. Era berean, 943 76 48 51 telefono zenbakian informazioa jaso daiteke.

Zabaleta garaile San Kosmen

Aitor Zabaleta pilotak garaipena eskuratu zuen domekan Zallan jokatuak San Cosmeko igoeran. Euskal txapelketako lehendabiziko proban Zabaletak bere maisutasuna erakutsi zuen, bi igoeretan denborarik onena egin baitzuen. Hurrengo proba Arraten jokatu da.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Sodupe

Hirugarren maila
Zapatua. 17:00. Agorrosin

Bergara-Urki

Neskak
Zapatua. 18:45. Ipintza

Bergara-Almen

Lehen mailako kadeteak
Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Beraun

Bigarren mailako jubenilak
Domeka. 11:30. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Leizaran

Jubenil neskak
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Ordizia

Senior neskak
Zapatua. 16:00.
Mariaren Lagundia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Legazpia

Senior mutilak
Gaur, eguakitza, 22:30.
Kiroldegia

Bergara-Zaldibi

Neskak
Domeka. 12:00. Kiroldegia

Tenis ikastaroak Kiroldegian

Udal Kirol zerbitzuak tenis ikastaroak (hasiera eta hobekuntza) antolatu ditu. Klaseak apiriletik ekainera bitartean izango dira, astelehen eta eguaztenetan. Tenis pista erreserbatzeko eskaerak Kirol zerbitzuan bertan egin daitezke. Argibide gehiago: 943 77 91 67.



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

| | |
|-------------------------------------|------------|
| 09:00. Amilotx-Ari Ari | Urrutxurtu |
| 10:00. Urrutxurtu-Buya | Xurruapak |
| 17:30. Tom Cat Argandolas-Guadalest | Bayer |
| 18:30. Bayer-Fac | Tom Cat |

ZAPATUAN KANPOAN

| | |
|--|--------------|
| 11:00. Xurruapak-Sirimiri Eri | Bildurbarek |
| 12:00. Bildurbarek Opel Lam-Ion Autoak | Sirimiri Eri |

DOMEKA BARRUAN

| | |
|-------------------------------------|------------------|
| 09:00. Artusamak-Txipiron | Errotagain |
| 10:00. Errotagain-Azpeitxi jatetxea | Txipiron |
| 16:00. A Ze Flaxa-Bar Canalejas | Irubide jatetxea |
| 17:00. Irubide jatetxea-Ortzi | Soropotroak |
| 18:00. Pagomendi-Soropotroak | Mongatxurrak |
| 19:00. Shaktale-Mongatxurrak | Pagomendi |

EMAITZAK

KOPAKO KANPORAKETAK

| | |
|--------------------------------|-----|
| Aterpe-Vacalouras | 2-4 |
| Mo(ko)lotov-Etengabe | 2-2 |
| Pinturas Bergara-Patxaran Team | 6-2 |
| Amoskibar-Uve Bikoitza | 2-5 |

LIGAKO KANPORAKETAK

| | |
|----------------------------|-----|
| Urrutxurtu-Shaktale | 1-6 |
| A Ze Flaxa-Guadalest | 7-6 |
| Bar Canalejas-Mongatxurrak | 1-1 |
| Fac-Pagomendi | 1-5 |

Oharra: Berdinketarekin amaitu ziren partiduetan, Mo(ko)lotov eta Mongatxurrak taldeek aurrera egin zuten, penalti jaurtiketetan nagusitu ondoren.



Hil ala biziko partidua

Astebukaera honetan jokatu diren partidua kopa txapelketa-koak dira guztiak. Hortik sailkatu diren 12 taldeei Vacalouras, Mo(ko)lotov, Pinturas Bergara eta Uve Bikoitza taldeak gehituko zaizkie final zortzirenak jokatzeko.

Liga txapelketa txapeladuna zortzi talde hauetatik aterako da: Bayer, Amoskibar, Errotagain, Sirimiri Eri, A Ze Flaxa, Shaktale, Mongatxurrak eta Pagomendi. Denboraldian zehar ikusitakoaren arabera, liga txapelketa eskuratzeko faboritu nagusiak Errotagain (argazkian, iazko txapeladunak) eta Mongatxurrak taldeak ditugu. Final laurdenetan Mongatxurrak partidu zailagoa izango du, Pagomendiren aurka jokatu beharko baitu. Errotagaineak, berriaz, Amoskibarri irabazi beharko dio aurrera egin ahal izateko.

ARGI!

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, arbitrazera aurkezten ez den taldea kanporatua izango da. Era berean, ezin izango dira partidua bertan behera laga. Bestalde, joan zen asteburuko partiduen ondorioz, antolaketak partidu bateko zigorra ezarri die Iñaki Narbaiza Mo(ko)lotov taldeko jokalaritari eta A Ze Flaxako Bittor Jimenez.

Informazio hau babesle hauei esker:



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

| | |
|---|--|
| San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49 | Zubillaga z/g OÑATI 943 78 24 13 |
|---|--|



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

mahoneroak



FELIX BARROCAL
BKEko bazkidea

Bergarak merezitako garaipena lortu zuen zapatuan Elgoibarren. Lehen zatia nahiko aspergarria izan zen; talde bakoitzak pare bat gol aukera izan zituen, baina atezainak ondo ibili ziren. Markel Egaña Bergarako atezainak geldiketa bikainak egin zituen eta, berari esker, ez zuen golik lortu Elgoibarrek lehendabiziko 45 minutuetan. Elgoibarko zaleek penaltia eskatu zuten atsedendia baino lehen, baina defentsa bergararrak Elgoibarko aurrelariari baloia garbi kendu ziola iruditu zitzaidan.

Bigarren zatian ere bi taldeek beldurrez jokatu zuten, eta ikusten zen lehen gola lortzen zuenak eskuratuko zuela garaipena. Jose-txok gola egin eta Bergarak abantailari eutsi ahal izan zion, Taldea oso kontzentratuta ikusi nuen, batez ere, defentsan. Fisikoki ere indartsu ikusi nuen. Ez luke arazorik izan behar kategoriari eusteko, baina, etxeko partidua irabazi behar dira.

Otsein Saria

Sailkapen orokorra:

| | |
|--------------------|----------|
| Oxel Apraiz | 10 puntu |
| Josetxo Lizarralde | 9 puntu |
| Asier Rodriguez | 9 puntu |
| Jokin Mendiartz | 9 puntu |
| Etor Laskurain | 7 puntu |
| Markel Egaña | 7 puntu |
| Gorka Dueñas | 7 puntu |

Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

talde federatuen emaitzak

ARETO FUTBOLA

Arditurri 4; Bergara 1
Senior neskak
Bergara 6; Urretxu 3
Jubenil mutilak
Oiartzun 3; Bergara 4
Neskek

PILOTA

Aretxabaleta 2; Bergara 1
Deba Arroko Txapelketa
Kadeteetan, 22; 11. Jubeniletan,
7; 22. Seniorretan, 22; 12.

ESKUBALOIA

Bergara 25; Legazpia 26
Senior mutilak
Bergara 20; Urola 27
Jubenil mutilak
Bera Bera 28; Bergara 17
Jubenil neskek
Leizaran 23; Bergara 15
Kadete mutilak

FUTBOLA

Elgoibar 0; Bergara 1
Hirugarren maila

Bergara 1; Eibartarrak 1

Lehen mailako jubenilak
Texas 1; Bergara 0
Bigarren mailako jubenilak
Mondragon 0; Bergara 1
Neskek
Bergara 2; Sporting Herrera 3
Ohorezko kadeteak
Union Txiki 5; Bergara 0
Lehen mailako kadeteak
Bergara 1; Aretxabaleta 2
Infantilak

SASKIBALOIA

Bergara 30; Tolosa 35
Senior neskek
Bergara 72; C. Apaolaza 61
Senior mutilak
Bergara 80; Eostadar 29
Jubenil mutilak
Bergara 41; Ordizia 48
Kadete mutilak

kronika jubenil mutilen eskubaloi taldea

Liderraren aurka ezinean

BERGARA 20

UROLA 27

Bergara: Jon Zangitu, Jon Mendizabal (6 gol), Gorka Unamuno, Josu Labaka, Mikel Larrañaga (3 gol), Jonathan Gimbert (6 gol), Jon Ugartetxea (4 gol) -hasierako taldea-, Ander Laborda (gol bat), Iñaki Aranzabal eta Joap Garcia.

Partzialak (10 minutuero): 3-5, 7-12, 12-15 (atsedenaldian), 15-21, 17-23 eta 20-27.



Argazkian domekan, Urolaren aurka, kantxaratu ziren bergarar jokariak.

Udaberriko txapelketaren barruan, Bergarako jubenil taldeak zazpi goleko aldeaz galdu zuen domekan Urolaren aurka, Kiroldegian jokatutako partiduan. Jose txo Muniategik zuzentzen duen taldea, liga txapelketan, ez zen sailkatu igoera

fasea jokatzeko, eta orain, kopa txapelketa hasteko zain, udaberriko txapelketan ari da. Helburua, bertan ari diren taldeek, kopari begira, erritmoa ez galtzea litzateke. Astebukaeran, jokatuko du azken partidua Bergarak, Elgoibarren.

Domekan, arerio zaila izan zuten aurrean Muniategiren mutilek. Urola ligaska honetako talderik indartsuena dugu, eta mahoneroen aurka beste garaipen bat lortu zuen. Etxekoak markagailuan atzetik izan ziren partidu osoan zehar, eta

ezin zioten aurre egin bisitarien joko gogorrari. Talde bergararrak lehen zatian bigarren baino hobeto jokatuz, eta atsedenaldea baino lehen, kontrako alde bi goletara murriztea lortu zuten. Hala ere, atsedendiaren ostean, zumarragarrik indartsu kantxaratu ziren eta sei goleko abantaila lortu ondoren, abantaila horri eutsi zioten partidua amaitu bitartean. Etxekoek faltan bota zuten aulkian ordeko jokari gehiago izatea, eta bigarren zatian nahiko motel ibili ziren. Bergararen partetik, Jon Mendizabal hegalekoa eta Jonathan Gimbert zentrala izan genituen golegile nagusiak, seina golekin.

Bergarak talde gazte dauka, kadete mailako lau jokari tartean direla (taldeko hiru lagun senior taldera pasatu dira jadanik). Muniategi pozik dago taldeak aurre egindako lanarekin; "ligan hasiera txarra izan genuen, baina Gabonetatik aurrera askoz hobeto ibili gara. Dena den, gure helburu nagusia talde nagusirako jokariak ondo gertatzea da".

ARKAITZ MENDIZABAL / Txirrindularia

"Zorte txarra izan arren, iaz baino hobeto nabil"

Arkaitz Mendizabal (23 urte) seigarren denboraldia betetzen ari da afizionatu mailan. Hasieran bere kontura ibili ondoren, azken bi denboraldietan Eibarko CDR taldean ari da eta sasoi onean dagoela dio.

G. Zer moduz aurtzen?
E. Joan zen urtean baino hobeto nabil baina zorte txarra izan dut. Gorka iagoeraren probaren bezperan, Oteizan, jausi egin nintzen. Gorlan bosgarren aldiz hartu dut parte aurtan, eta sekula baino hobeto ibili naiz; 41. postuan sailkatu nintzen, 23 minutu eta 2 segunduko denborarekin. Astebukaeran, berriz, Lizarran eta Villatuertan korritu

nuen, baina gaizki ibili nintzen.
G. Duela pare bat urte laga egin zenuen txirrindularitza.
E. Bai, 97tik 98ra bitartean, urte eta erdiz bizikleta laga nuen, ondo ez nembilelako. Laga eta gero, berriz ere gustoa hartu nion bizikletari eta lizentzia ateratzerakoan CDR taldean hasteko aukera sortu zitzaidan.
G. Egun bateko ala etapetako probak gustokoago?
E. Egun batekoekin nahikoa daukat...
G. Zelako txirrindularia zara?
E. Konpletua, denean larri ibiltzen den horietakoa. Lauan gustorago aritzen naiz.

G. Urteko zein sasoiaren ondoren?
E. Joan zen urtean udan "fundidu" egin nintzen, baina beroarekin hobeto nabil.
G. Bukatzeko, zer iruditzen zaizu Pantaniri gertatutakoa?
E. Harrapatu egin dute, eta ematen duenez, bere buruak ez du hori onartu nahi.



MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

ALAI GARAJEA PEUGEOT. Urarte,12 Bergara Tel.: 943 76 22 96

| | | | | |
|-----------------------------------|--|--|----------------------------|-----------|
| VW Golf GTI | | | | 500.000 |
| Opel Kadett GSI 2.0 | | | | 575.000 |
| Peugeot 106 Long Beach 1.5 Diesel | | | LD, IK, IZ, KE | 1.200.000 |
| Peugeot 206 XR 1.4 | | | LD, IK, IZ, KE, Airbag | 1.425.000 |
| Peugeot 306 Break 1.6 Style | | | LD, IK, IZ, KE, Airbag | 1.745.000 |
| Peugeot 406 SR Turbo Diesel | | | LD, IK, IZ, KE, Airbag, AG | 2.350.000 |
| Peugeot 806 2.0 ST | | | LD, IK, IZ, KE, Airbag, AG | 2.850.000 |

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tel.: 943 76 09 30

| | | | | |
|-------------------------|--|--|----------------|----|
| Peugeot 406 Coupe V6 | | | 0 km | *7 |
| Peugeot 406 SR 1.8 | | | 0 km, 4 airbag | *7 |
| Peugeot 306 Graffic 1.6 | | | AG 17.000 km | *6 |
| Peugeot 306 Break 1.6 | | | ABS, 2 airbag | *6 |
| Peugeot 106 Sketch 1.1 | | | 10.000 km | *4 |
| Daewo Nubira 2.0 | | | | *6 |

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49 Bergara Tel.: 943 76 22 43

| | | | | |
|------------------------|---------|------|----------------------------|----|
| Peugeot 309 GTX 1.9 | SS- -AK | 1991 | LD, KE, IZ, LKA, IK | *3 |
| Renault Supercinco GTX | SS- -AB | 1988 | KE, IZ, KA, AH, IK | *1 |
| Ford Focus 1.6i 5 ate | SS- -BG | 1999 | AG, KE, LD, IZ | *6 |
| Citroen Zx 1.9D | SS- -AM | 1992 | IZ, KE | *4 |
| Opel Kadet 5 ate 1.7D | SS- -AH | 1990 | | *2 |
| Seat Toledo GT 1.8 16v | SS- -AL | 1992 | IZ, KE 4, LD, AH, LKA, ABS | *3 |

PEUGEOT (ETORMOBIL - EKOMOBIL). Tel.: 943 20 09 96 / 943 20 09 66

| | | | |
|----------------------------------|--|------------------------|--------------------------------|
| Peugeot 106 1.1 (hainbat) | | Gasolina edo Diesela | 875.000 ^{tik aurrera} |
| Peugeot 206 XR 1.4 | | LD, IZ, KE, Airbag | 1.425.000 |
| Peugeot 306 Break 1.6 Style | | LD, IZ, KE, Airbag | 1.745.000 |
| Peugeot 306 Graffic Turbo Diesel | | LD, IZ, KE, Airbag, AG | 1.850.000 |
| Peugeot 406 SR Turbo Diesel | | LD, IZ, KE, Airbag, AG | 2.350.000 |
| Peugeot 806 2.0 ST | | LD, IZ, KE, Airbag, AG | 2.850.000 |

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako traxioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak UAT: Urrutiko aginte tresna

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra



Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tel.: 943 76 33 00

AUTO DESGUACES BERGARA

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
 PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
 GRUA ZERBITZUA

PENAKOBA



Zarugalde, 46 Lizaur arkitektoa, 7
 Tel./Faxa: 943 79 29 93 Tel.: 943 78 05 60
 ARRASATE OÑATI

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

FIAT KANPAZAR C.B. Bizkaia Etorbidea, z/g **Arrasate** Tel.: 943 79 41 98

| | | | | |
|----------------|-------|------|-------------------|----------------|
| Fiat Punto TD | | 1999 | IK, 5 Ate | Kontsultatzeko |
| Fiat Tipo | SS-AL | 1992 | IK, 5 Ate | Kontsultatzeko |
| Renault Megane | SS-AX | 1996 | IK, 5 Ate, LD, IZ | Kontsultatzeko |

MECA. San Andres, 8 **Arrasate** Tel.: 943 71 21 67

| | | | | |
|---------------------------|--|-------|---------------------|-----------|
| Audi 80 TD | | 92/07 | LD | 975.000 |
| Ford Galaxy TDi | | 96/10 | LD, IZ, KE, AG, ABS | 2.730.000 |
| Chrysler Voyager 2.5 S.E. | | 97/12 | LD, IZ, KE, AG | 2.700.000 |
| Ford Transit Furgon | | 96/10 | LD | 1.350.000 |
| Opel Corsa 1.4 3 ate | | 98/09 | LD, KE, IZ, Llantak | 1.190.000 |
| Classic 1.6 Alize | | 97/12 | LD, IZ, KE, AG | 1.590.000 |

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. **Bergara** Tel.: 943 76 47 74

| | | | |
|------------------------|-----------|-----------------------|-------------|
| Opel Astra (hainbat) | <Urtebete | Full Equip | Lehiakorrak |
| Opel Vectra (hainbat) | <Urtebete | Full Equip | Lehiakorrak |
| Opel Frontera 2.3 TD | BI - BS | KE, IZ, IK, LD | *7 |
| Opel Kadett | | Gasolina eta Diesel | *2 |
| Opel Corsa 1.2. | SS- -AH | | *1 |
| Peugeot 205 1.3 Raylle | SS- -AF | IK, Llantak | *1 |
| Citroen XM 2.2. diesel | BI- -BJ | LD, KE, IZ, IK, AG, A | *4 |
| Ford Escort 1.6 | SS- -AB | IZ, IK | *1 |
| Seat Marbella | SS- -AM | IK | *1 |
| Hyundai Atos 5 ate | SS- -BB | UAT, KE, IZ, IK, LD | *4 |

Auto gehiago ditugu


REPARACIONES LENIZ, C.B. Aingeru Ibiltokia, 31 **Eskoriatza** Tel.: 943 71 50 61

| | | | |
|-------------------|------------|------|--|
| Peugeot 205 Plus | SS-6795-AI | 1990 | |
| Rover 214 SI | SS-7350-AN | 1991 | |
| Citroen AX Stillo | SS-8730-AC | 1988 | |

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84



SAN MARTIN
KARROZERIAK

Autoaren konponketa orokorrean

San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen
kopiak egiten
ditugu!



Txorno
Auto-errekambioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

AGUSTIN

Automobilaren
karburazio eta
elektronika



Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58



Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

Larringan

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

DENA AUTO

Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97

DENA AUTO 11. alea. 2000.eko martxoa

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisu txiki bat salgai Antzuolan. Etxabea. 943 76 60 20 (gauzez).

Pisua Fraiskozurin, ganbarearekin. 103 m². 943 76 49 56.

Zubiaurre. 943 76 23 93.

Pisua salgai Zubietan. 943 76 12 61.

EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02.

Etxea erosiko nuke alde zaharrean. 943 76 38 25.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

Etxea erosiko nuke Benidormen; aukeran, 3 logeladuna eta itsaso ondoan. 943 76 24 54.

ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Torreviejan, udan. Hondartzatik gertu. 943 78 14 72.

ETXE KONPARTITUAU

Logela hartuko nuke

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartitua
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

alokairuan, sukalderako eskubidearekin. 943 76 46 64, goizez (Marilo).

Pisua konpartituko nuke. 667 52 48 98 (Andres).

2. GARAJEAK

SALDU

Antzuolan, Zurrategin. 943 76 64 00.

Bolu. 2 plaza. 616 049 865.

Antzuola, Kalegoi.

943 76 47 16.

Masterreka (Pertxa azpian). 696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun. 943 76 19 69.

Ibargarai. 1.500.000 PTA. 943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

S. Marina. 943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Etxabe komertziala salgai edo alokairuan Aranerrekan. 943 76 32 00.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean 35 m²ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Martokan. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAINTZAK

Eskaiera eta garajeak

garbitzeko esperientziadun pertsona lanerako gertu. 943 76 35 38 (Antonio).

Mutil gaztea lanerako gertu. 616 664 851.

Mutil gaztea soldatzaile edo beste edozertan jarduteko gertu. 646 820 371.

Apunteak, lanak eta era guztietako dokumentuak ordenadorez. 646 095 338.

Esperientziadun ileapaintzailea; 26 urte. 629 483 847.

Neska, administrari lanerako eta ordenadorez informea pasatzeko gertu. 943 76 73 11 (Garbiñe).

Etxeko lanak, umeak zaindu edo dendarri lanak. 636 76 25 70.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendarri lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Etxeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

Txoferra lanerako prest, C eta C-1 gidabaimena

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.

Ametz

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA
Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.
Antsietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna

Tratamendu pertsonalatuak eta ondoriogabeak.

Tabernarako ZERBITZARIA
behar da

943 76 59 19

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Sukalderako LAGUNTAILEAK
behar ditugu

943 76 18 49

eta garraioetarakoa dituen. 943 76 30 34.

Neska euskalduna goizez lan egiteko gertu. 943 76 23 41.

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko litzuke. 609 77 01 33 (Asis).

Neska bat goizez garbiketarako egiteko gertu. 943 76 38 73.

Neska lanerako gertu. 943 76 00 90.

ESKAERAK

Norbait behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 52 79 (gauetz).

Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 943 76 56 90.

Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 05 55.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

9-13 urtekoei mate, ingeles e.a. ematen dizkiet. 943 76 33 68 (Maite).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

UBlko matematika klaseak hartuko nitzuke. 943 76 33 23.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Opel Corsa 1.2 (SS-Y). 943 76 37 84.

Suzuki motorra. Ia berria. 130.000 PTA. 943 76 37 83.

Seat Toledo V5. SS-BH. 943 76 54 19.

VW Passat 1.6. SS-T. 943 76 57 71.

Citroën AX 1.4. SS-AB. 200.000 PTA. 630 750 099.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 300.000. 943 76 06 53.

Renault 5. (SS-V). 943 76 37 74.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Kadett GSI 16V. Egoera ona. 943 79 75 11 /98 08 (Mikel).

8. DENETARIK

SALDU

Goiko kargadun Otsein garbigailua prezio onean. 943 76 29 60.

Hiru deposito: 8.000 litroko bat eta 1.800eko bi. 943 76 12 36.

Alpen Kreuzer karrodenda. 943 76 39 87.

16" lantak salgai, egoera onean eta merke. 943 76 54 19.

Bi oheko logela oso bat eta egongelako armarua salgai. Estreintatu gabe. 943 12 74 03.

Terrazarako 12 mahai eta plastikozko 50 aulki, prezio onean. 943 76 07 92.

Karro denda egoera onean. 943 78 70 74.

Sukaldeko altzariak, harraska eta kanpaia salgai. 943 76 55 63.

Hapro solariuma. Egoera onean. 943 76 51 76.

Imar karro-denda. Deitu 943 76 59 56 telefonora.

Bateria salgai. Merke. 943 76 50 77 (Manu).

Aulkiak eta mahaiak. 943 76 46 90.

EROSI

LPak erosten ditut. Deitu 943 79 76 90 telefonora.

Terrenoa erosiko nuke Bergara inguruan ura eramateko aukerarekin. 943 76 32 14 (18:30etik aurrera).

EMAN

1-7 urte bitarteko umeendako erropa eta bainera, konketa eta komuna opari. 943 76 44 34.

HARTU

Caritasek sukalderako armaruak behar ditu. Deitu 943 76 11 98 telefonora.

GALDU

Forro pölar gorria; Seminario inguruan. 943 76 27 04.

BESTELAKOAK

Ortua alokairuan Boluko depositotik gertu. 943 76 12 36.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KOMERTZIALA
Bilbo. 27905/6

SALTZAILEA
Donostia. 28053/1

KAMIOI MEKANIKARIA
Bilbo. 28938/3

PROGRAMATZAILEA
Gatzaga. 29277/3

PRODUKZIO ARDURADUNA
Debabarrena. 29771/2

OPERADORE TEKNIKOA
Donostia. 29804/7

ANALISTA PROGRAMATZAILEA
Ibaizabal. 30150/1

MERKANTZI GARRAIOLARIA
Durangaldea. 30267/1

BILTEGIZAIN SALTZAILEA
Donostia. 30900/1

URBANIZAZIO BATEN MANTENIMENDU ARDURADUNA
Durangaldea. 30277/1

SUKALDARIA
Urola Kosta. 30374/4

MAKINA-ERREMINTARAKO LANGILEAK, 2
Urola Erdia. 30521/4

AUTOSALMENTA
Donostia. 30534/3

TAILERRERAKO OFIZIALA
Plentzi-Mungia. 30642/4

ELEKTRIZISTAK, 3
Arabar Lautada. 30646/2

INFORMATIKA TEKNIKARIA
Bilbo. 30872/1

SUKALDARI LAGUNTZAILEA
Kantabria. 29490/5

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



INMOBIILIARIA

Etxebizitza berriak Antzuola erdi-erdian

Korosti inmoibiliaria: Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi. Tf. eta faxa: 943 73 05 25.

- Laster hasiko gara eraikitzen.
- Leku ezin hobean.
- Punta-puntako materialekin eraikiak
- 18 milioitik hasita

Agirrebeña

GAZTEKIA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

Jatorrizko bertsioan emandako pelikulen zine zikloa eguenetik aurrera


Forum Cinematographe kolektiboak jatorrizko bertsioiko filmen zine zikloa antolatu du udalaren laguntzaz. Zikloa datorren ostegunean, apirilak 6, hasiko da, eta beste hiru ostegunez luzatuko.

Lau film eskainiko dira, Alfred Hitchcock, Douglas Sirk, Joseph Leo Mankiewicz eta John Ford zuzendari handienak. Luzemetraiak jatorrizko bertsioan izango dira, eta gaztelaniazko azpitituluak izango dituzte. Novedades aretoan eskainiko dira, 400 pezetaren truke, gaueko 21:30ean.

Zikloa Hitchcocken "To catch a thief" filmak irekiko du, datorren ostegunean. Bertan, Cary Grant eta Grace Kelly azalduko zaizkigu, Hitchcock maisuaren suspentse komedia batean murgilduta.

Apirilaren 13an, "A time to love and a time to die" 1957. urteko filma ikusi ahal izango da. Sirk zuzendaria, Bigarren Mundu Gerrako garaietara eramango gaitu Alemanian oinarritutako amodio historio baten bidez.

Apirilaren 27an, Bette Davis, Anne Baxter eta George Sanders izango ditu-



The searchers (1956), A time to love and a time to die (1957), To catch a thief (1955) eta All about Eve (1950) filmeetako irudiak.

gu Novedadesen. Mankiewiczek, aparteko aktore hauek bildu eta antzerki giroan oinarritutako "All about Eve" komedia dramatikoak sortu zuen.

Zikloa, oesteko film batek itxiko du, maiatzaren 4an, John Ford-ek zuzendutako "The searchers" filmak, hain zuzen. John Wayneren jarraitzaileek aukera ederra dute berai ikusi eta baita honen benetako ahotsa entzuteko ere.

Bergarako Orfeoiak Zuzendaritza batzordea berritu egin du

Bergarako Orfeoiak, 75. urteurreneko ospakizunak orain ez dela denbora asko atzean lagata, Zuzendaritza Batzorde berria du joan zen otsailaren 29tik. Honako hauek osatzen dute Bergarako Orfeoiko batzorde berria: datozen bi urteetan lehendakari lanetan Julen Alberdi gaztea arituko

da, lehendakariordea Karlos Etxaniz izango da, zuzendaria David Azurza, zuzendariordea Kristina Larrañaga eta diruzain lanetan Pilar Guallarrek jardungo du.

Batzordekideak Jaione Arana, Aitziber Etxeberria, Haritz Gallastegi, Maribel Suinaga eta Xabier Zabaleta izango dira.

Boikot taldeak kontzertua eskainiko du gaur Jam aretoan

Boikot taldeak kontzertua eskainiko du gaur, eguaitza, gaueko 22:00etan, Jam aretoan. Rosendo eta Los Suaves bezalako taldeen eragina duen taldea da Boikot eta rock urbanoa egiten duten arren, ska eta garage doinuendako tokia ere badu euren musikak. Dagoeneko lau disko kale-

ratu dituzte, "Los ojos de la calle" 1991. urtean, "Con perdon de los payasos" (1992), "Cria cuervos", eta azkena, "Tu condena", 1996. urtean.

Gaur gaueko kontzertuan, Boikotekin batera, "El sueño de Opennhiner" taldea telonero lanetan arituko da. Sarrera, 1.200 pezeta.

bergara ezagutzen lehiaketa



Ane Miren Zabalak eta Izaro Aperribaik jardun dute aurkezle lanetan finalean.

Alde handiarekin irabazi zion Hik Galdeu taldeak iazko Petu-Petuan garaileari

Hik Galdeu taldea izan da "Bergara ezagutzen", Jardunek antolatzen duen lehiaketako irabazlea. Hik Galdeuk 255 puntu lortu zituen, Petu-Petuan, bere aurkariak baino 40 puntu gehiago, joan zen eguakitzēan Kartzela Zaharrean izandako norgehiagokan. Ez zen makala izan bi finalisten arteko lehia. Gogoratzekoa da, era berean, iaz Petu-Petuan izan zela lehenengo saria jaso zuen taldea.

Gauzak horrela, lehiaketan talde guztiak gogoz aritu izan badira ere, aurreko urteetan aritutakoek puntuaketa hobea lortu dute aurreko lehenengo aldira parte hartu dutenek baino.

Giroa, bestalde, oso polita izan da, eta arduradunek adierazitakoaren arabera, adin ezberdintasuna kontuan izanda ere, oso ondo moldatu dira taldeetako neska-mutikoak euren artean.

Behin Bergara ondo ezagutzen dutela erakutsita, Hik Galdeu talde irabazle-

ko kideak Bertizera joango dira apirilaren 15etik 16ra abentura-kirola egitera. Gainerako zazpi taldeetako kideek, kamiseta bana jaso zuten ostiralean, eta baita luntx goxoa jan ere.

HONELA JOAN DA LEHIAKETA

1. fasea

| | |
|-------------------|-----------|
| PETU-PETUAN | 322 puntu |
| MISFITS | 278 puntu |
| ASMAIZU | 260 puntu |
| HIK GALDEU | 258 puntu |
| JAKINTSUAK | 215 puntu |
| BADAKITX | 208 puntu |
| AZKARRAK | 189 puntu |
| JOTAPURTU | 144 puntu |


2. fasea

| | |
|-------------------|-----------|
| HIK GALDEU | 248 puntu |
| PETU-PETUAN | 220 puntu |
| ASMAIZU | 198 puntu |
| MISFITS | 155 puntu |

Finala

| | |
|-------------------|-----------|
| HIK GALDEU | 255 puntu |
| PETU-PETUAN | 215 puntu |

erreseinak



Txema Garcia-Viana
Balatza
Eleberria

Txema Garcia-Viana donostiarra 1984. urtean kaleratu zuen bere lehen liburua: "Ihesi" izeneko poema liburua. Geroztik, "Triangelu hautsia" nobela eta "Bi ipuin harrigarri" liburua argitaratu ditu. Hemen aurkezten dizuegun "Balatza" eleberririk Tolosako udalak antolatzen duen Antonio Maria Labaien saria jaso du. Balatza, eleberriko emakume protagonistaren izena da. Helburu nagusi bat du Txemistaren alabak: Aitorren aginte-makila aurkitu bere herria Karломagnoren agintetik askatzeko.

-Alberdania, 191 orr.. 2.100 PTA



Doctor Deseo
Atrapado en tu silencio...
Pop-a

Doctor Deseo taldeak kaleratu berri duen lana, taldearen boskarrena. Hamar kantaz osatuta dago, betiko ildoari jarraituz musika zein kanten hitzetan: "Reality Show", "Ahora que estas dormida", "Encadenado a tus juegos"... kanta urbanoak dira oso, azken batean, "Doctor Deseo" bere lehenengo diskotik nabarmen-tzen duen ezaugarria gordez. "Atrapado en tu silencio de incertidumbres y caricias" honetan ere, azken bi diskoetan egin bezala, euskarazko kanta bat tartekatuta dute, "Morrosko laztana", Idaho Mike gaztearen nondik-norakoak kontatuz.

-Discos Suicidas. 1900 PTA

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa

| | | | | | | | | | |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

Ezker eskuma

1. Aurrenekoa. 2. Edade batekoa. Berrogeita hamar.
3. Su. Begiratu azkarra. 4. Kanalea. Hamabi. 5. Anaia.
Asiako estatua. 6. Muga. Ikasia. 7. Bokala. Igandea.
Kontsonantea. 8. Italiako hiria. Tu. 9. Oinarrizko edaria.
Asiako ibaia. 10. Emakumeari egiten zaion hika.
Hots baten altuera.

Goitik behera

1. Adiskidetasun. 2. Ezaugarri bereziko edaria. Gizon izena.
3. Hiriko pasealekuak. 4. Noren atzikia. Dago. Zintzo.
Bokala. 5. Nekadura. Infin., amaitu. 6. Sortalde.
14. eta 21. kontsonanteak. 7. Zein. Borroka-kirola.
8. Eritasun. 9. Oxigenoa. Klera. Ugaritasuna adierazteko
euskal atzikia. 10. Pozik. Sexu eme. Bokala.

Soluzioa

10. Alai. Alu. A.
9. O. Kisu. Tsu.
7. Nor. Aikido. 8. Gaixotasun.
5. Neke. Ama. 6. Ekialde. Nr.
3. Hiribideak. 4. En. Da. On. A.
1. Laguntasun. 2. Edabea. Iro.
Goitik behera
9. Ura. Indus. 10. Noka. Tonua.
7. A. Domeka. L. 8. Siena. Istu.
5. Neba. Laos. 6. Tai. Aditua.
3. Gar. Krika. 4. Ubidea. XII.
1. Lehengoa. 2. Adinekua. L.
Ezker eskuma

LUMA

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereibar




Zein da "Moiarena" izenez ere ezagutzen den XVII. mendeko etxe honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Ingurugiro Astean zein erakusketa antolatu da?
A- Zuhaitzen hostoena
B- Bergarako mendien argazkiena
C- Animalien hatz markena
2. Zein taldetan jardun du aurten Ion Unamuno txirrindulariak?
A- Iberdrola
B- Saunier Duval
C- CDR
3. Zein taldek irabazi du "Bergara ezagutzen" lehiaketa?
A- Asmaizu
B- Petu-Petuan
C- Hik galdeu



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Nikolas Arzeluzentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Nikolas! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Komenio kalea eta Arruriaga kalea** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Ariel Oro Alpes
garbigarria, 2 kgr. 15 ontzitzo
695 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Bergaran oso ezaguna da osintxuar hau. 78 urte ditu eta Mugarri bere jaiotetxian bizi da semiarekin batera. Urte asko daroia sendabellarrekin lanian, eta telebista eta egunkarixetan be sarri berba egin dau honen inguruan.

Zeinek erakutsi zotzun gaur dakizun sendabidiak eta holakuak?

Añorgako Anjelak asko erakutsi zotan; bere ondorengiak ez zeren interesauta eta neri emun zotan bere errezetak.

Jende asko etortzen jatzu kontsultara?

Bai, gaiñera orain, gero eta gehiago.

Ze gaixotasun sendatu izan dozu?

Egixa esan, danetik: besikulako eta giltzurrunetako harririk kendu ditudu, soriasisa be bai...

Zein da sendatu dozun gaixotasunik larrixena?

Hiltzen zeguan Elgoibarko mutil bat sendatu neban, berakuakin zeguana.

Sendagileekiko konfidantzarik badaukazu?

Danerakuak egongo dira, baiña nik neuk konfidantza haundixa daukat, eta eureta-ko askok nere sendabideekin be bai, e!

Ze belar erabiltzen ditudu gehixen?

Asko, baiña gehixenbat, pasmo belarra, berbena belarra eta salikaria.

Udaberrixan hainbeste jende edukitzen ditudan alergixendako erremedioxoren bat?

Alergiak, berez, ez dire esistitzen; gorputzeko gabeziaren baten sintoma bat beste-rik ez dire.

**Sen berezi bat bihar da zure lan hone-
tarako?**

Bihar da gogua eta bestiei lagun egitteko ilusiño hori.

Paula Alberdi

Superstiziosoa zara?

Ez, bat be ez.

Usain bat?

Nik erabiltzen doten perfume bat, "Eau de Rochas".

Manixa bat?

Biharko ez lagatzia gaur egin leikena.

Sukaldari ona zara?

Beno...bai.

Zure espezialidadia?

Babarrunak.

Maittasun errezetarik badaukazu?

Errezetarik ez dago; kontua da bihotzak esaten dabenari kaso egittia, kaso eginez gero, gauzak ondo juten dira.

Txikittan zer izan nahi ziñuan?

Nik nahi nebana batxillerra egittia zan, baiña ez zeguan dirurik eta ezin egin.

Boteilia erdi beteta ala erdi hutsik ikusten dozu normalian?

Erdi beteta, optimistia naiz.

**Zurekin ondo konpontzeko ze baldin-
tza bete bihar ditudu bestiak?**

Sinzeridadia, ez deixela ezer gorde.

**Bukatzeko, zer ikasi biharko giñuke
lehengo garaixetatik?**

Gauza asko. Nik uste dot gaztiak guregan-
dik asko ikasi leikiela, baiña baita geuk
be gaztiengandik.



pearcing

tatoo

Oinetakoak

Arropak

Zilarra

Osagarriak

Laster Irala kalean egongo gara

MAYA



Pertxa taldea, 1975

Aste honetako, garai batean Seminarioan jokatzeko ziren futbol txapelketetako erretratu adierazgarria da. Esan bezala, udaberri eta uda partean herriko gaztetxo, gazte eta nagusiak Bergara Kirol Elkarteak antolatzen zuen txapelketan aritzen ziren. Adinaren arabera, kategoriari bereizten ziren, eta talde dezente izaten ziren lehen. Kasu gehienetan, herriko elkarteek babestutako taldeak osatzen ziren, eta zenbait ligaska eta kanporaketa jokatu ondoren finalak Pazkuetan izaten ziren. Nabarmentzen ziren jokalariei Bergara Kirol Elkarte taldeekin "fitxatzeko" aukera eskaintzen zitzaizkien.

Aste honetako erretratua 1975eko udakoa da, eta, bertan, orduko Pertxa taldeko gaztetxoak ageri dira. Antza denez, finalera iritsi eta kopa eskuratu zuten urte hartan, Juan Egaña

"Pitia"ren aginduetara. Argazkiko gaztetxo gehienek 9 urte izango zituzten orduan eta, beraienkin batera, orduan Realean ari zen Agustin Aranzabal "Gaztelu" eta bere emaztea ageri dira. Hona hemen zeintzuk diren argazkian daudenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Eukeni Zabala, Jaime Garcia, Asier Madinabeitia, Agustin Aranzabal "Gaztelu", Joxe Lazkano, Gotzon Zabala, Maria Angeles Alkorta eta Joseba Moñux.


Makurtuta: Juan Egaña "Pitia", Eneko Azkarate, Mikel Lazkano, Josu Lazpiur, Josu Inclan "Kuxin" eta Jon Ander Egaña.

*Argazkia: Bergarako Udal Agiritegia.
Roman Larrañaga fondoa.*

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

Zumelaga
JATETXEA
54 urte zuen zerbitzura!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

M
MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25



**Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.**

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESQUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS



AKER

TATTOO & PEARCING



zatoz
inauguraziora,
datorren
egukitzean,
apirilaren 7an.



AKER
Tattoo & pearcing
Ferrerias 28 behea B
ARRASATE
656 747 334